

San Fermín 2024

Famplona / Iruña 

Del 6 al 14 de Julio/
Uztailaren 6tik 14ra



Idazketa, edizioa eta argitalpena:
Iruñeko Udala.

Diseinua, ilustrazioa eta maketazioa:
Artworks Komunikazioa.

Lege gordailua:
DL NA 1721-2019.

AURKIBIDEA

SAN FERMIN 2024

San Fermin
Txupinazoa
Entzierroa
Festa kalean
Berdintasunean oinarritutako Sanferminak
Festen irudia hedabideetan
Zezenaren feria
Festa, Hemingwayri jarraituz
Gaixoa ni
Sanferminak datuetan
Sanferminetako dekalogoia
Telefono interesgarriak

5 PASEO IRUÑEAN BARNA

1. Iruña, hiri gotortua
2. Iruña, hiri berdea
3. Iruña, hiri xakobeoa
4. Iruña, hiri gastronomikoa
5. Iruña, hiri kulturala

NAFARROA EZAGUTZEKO PROPOSAMENAK

1. Orreaga, Donejakue bidearen atea
2. Iratiko oihana eta Pirinioetako paisaiak
3. Turismo aktiboa: mendi-ibiltaritza, zikloturismoa eta abentura-parkeak
4. Kultura, artea eta Oliteko jauregia
5. Errege Bardea parke naturala
6. Gastronomia, barazkiak, pintxoak eta ardoak
7. Alojamentuak eta esperientziak naturan

SAN FERMIN 2024


SAN FERMIN

UZTAILAREN 6TIK 14RA, IRUÑA ZURI-GORRIZ JANZTEN DA SAN FERMINI DEDIKATUTAKO 9 JAI EGUN OSPATZEKO. 1657. URTEAZ GEROZTIK SAN FERMIN NAFARROAKO PATROIA DA SAN FRANCISCO JAVIERREKIN BATERA. KONDAIRAK DIOENEZ, SANTUARI LEPOA MOZTU ZIOTEN ETA HORREGATIK BEDERATZI JAI EGUN HORIETAN ZAPI GORRI BAT LOTU OHI DA LEPOAN.

NOR IZAN ZEN SAN FERMIN?

Kondairak dio Fermin Firmusen semea zela, III. mendean Pompaelo –gaur egungo Iruña– hiri erromatarreko senataria.

Firmusek bere semearen heziketa Honesto presbitorearen esku utzi zuen eta honek familia osoa kristautasunera bihurtu zuen. Fermin Galiak ebangelizatzeraz abiatu zen eta 24 urte zituela Toulouseko (Frantzia) apezpiku sagaratu zuten. Akitania, Auvernia, Anjou eta Amiens barna ibili zen eta mirariak egiten hasi zen: itsu bati ikusmena bueltatu zion, legenarra eta paralisia sendatu zituen eta sorginkeriak egin zituen. Sebastian izeneko gobernatzaile erromatarrek, Jupiter eta Merkurioenganako kultua berreskuratzeko asmoz, Fermin kartzeleratua izan zedin agindu zuen eta azkenean irailaren 25ean sable batekin lepoa moztu zioten. Martirio hori oroitzeko, iruindarrek zapi gorria lepoan lotuta eramaten dute jaiek irauten duten bitartean.



Kondairak dioenez, San Ferminen gorpuzkinak Amienseko Katedralean daude eta XII. mendera arte ez zen Iruñean gurtzen hasi. Amienseetik zetozen erromesek haien hirian Iruñeko santu bat gurtzen zenaren berria ekarri zuten.

Zenbait erlikia Iruñara iritsi ziren. Ezagunenak Pariseko Pedro apezpikuak ekarri zituenak dira eta gaur egun Iruñeko Katedralean eta San Lorenzo Elizaren Santuaren irudian gordetzen dira.

IA 1.000 URTETAKO HISTORIA DUEN FESTA BAT

Erdi Aroan jada urriaren 10ean Santuaren omenezko elizkizunak ospatzen ziren San Fermin Amiensen sartu zela oroitzeko, eta haien ondoren, hiriko pertsona txiroentzako bazkari jendetsu bat ospatzen zen. Gutxinaka gutxinaka prozesioari komediak, musika, juglareak, danborrak eta dantzak gehitzen joan zitzaizkion.

Festak deritzegun horiek XVI. mendean ospatzen hasi ziren.

1591n Udalak, udazkeneko eguraldi txarra zela-eta, ospakizunak uztailearen 7ra aldatu ziren, erosle eta merkatari ugari biltzen zituen azoka frankoarekin kointzidituraz, eta zezenketak ospakizunen parte bihurtu ziren.

XX. mendean, komunikabideen, garraioaren eta turismoaren garapenak festez gozatzeko asmoa zuen jendetza ekartzen hasi zen Iruñera. 1954an Literatura Nobel Saria irabazi zuen Ernest Hemingway idazle iparramerikarrak unibertsalizazio prozesu hori nabarmen bultzatu zuen 1924an Sanferminetan girotutako *The sun also rises* (*Eguzkia ere altxatzen da*) eleberria idatzi baitzuen.

Iruñeak **HIRU ZEREMONIA ERLIJIOSO** garrantzitsutan San Fermin gurtzen jarraitzen du: bezperak, prozesioa eta zortzigarrena. Prozesioa da santuaren irudia kalera ateratzen den urteko une bakarra eta iruindarrek ibilbidean egiten diren geldialdietan gurtzen dute batez ere.



BEZPERAK

Santuari kantatzen zaizkion bezperak festetako lehenengo elizkizuna dira. Uztailearen 6an ospatzen dira, 20:00etan, San Fermin kaperan. Udalkorporazioa galaz jantzita joaten da. Gizonak fraka, eskularruak eta xistera jantzita.

PROZESIOA

Baliteke prozesioa Sanferminetan gehien errotuta dagoen tradizioetako bat izatea. Izan ere, XII. mendean du jatorria, Pariseko Pedro hiriko apezpikua zenean, Artaxoako Pedro gisa ere ezagutzen dena.

Alkatea eta zinegotziak, bezperetan bezala galaz jantzita, udaletxetik katedralerantz ateratzen dira Kabildoarekin batzera, hari baitagokio Santuaren omenezko prozesioa gidatzea. Ondoren, San Lorenzo elizara joaten dira San Ferminen tailua jasotzera eta Iruñeko erdialdean barna ordu eta erdiz ibiltzen den prozesioari ekiteko.

Haiekin batera joaten dira erraldoi eta buruhandien konpartsa, klarineroak, mazolariak, txistulariak, dantzariak, tinbalariak, gremio historikoen ordezkariak, Pasioaren Hermandadea eta Mariaren Elkartea. La Pamplonesa udal musika bandak prozesioari amaiera ematen dio.

Prozesioko unerik hunkigarrienak ibilbidean egiten diren geldiuneak dira. Horiei «unetxoak» deritze, bereziki santua omentzeko erabiltzen diren geldiuneak.

San Lorenzo elizara bueltan, artzapezpikuak meza ematen du, eta ondoren Korporazioak Kabildoa katedralera laguntzen du berriro. Han erraldoiek Katedraleko atalondoan dantza egiten dute txistu eta gaiten doinuari jarraiki, kanpaiek, klarinek eta La Pamplonesak jotzen duten bitartean.

Nabarmentzekoa da 1584an egin zen Maria kanpaiaren soinua eta haren 12.000 kiloak, Espainiako kanpairik handienetan bigarrena.

Korporazioa udaletxera bueltatzen da *Damaskoko Ezustekoa* doinuan eta dantzariak Udaletxeko Plazan dantzatzuz agurtu egiten dira.

ZORTZIGARRENA

Santuaren omenezko meza hau San Fermin kaperan egiten da uztailaren 14an 10:45ean.

1689. urtetik ospatzen da eta

festetako programa ofizialeko azken elizkizuna da. Korporazioa prozesioan joaten da kaperara erraldoi eta buruhandiez, guardia municipalaz eta La Pamplonesaz lagunduta. Elizkizunaren ondoren udaletxera bueltatzen dira.



TXUPINAZOA


SANFERMINEI UZTAILAREN 6KO EGUERDIKO 12ETAN HASIERA EMATEN ZAIE TXUPINAZOAREKIN, ALEGIA UDALETXEKO BALKOI NAGUSITIK FESTEN HASIERAREN BERRI EMATEN DUEN SUZIRIA JAURTITZEN DENEAN. URTERO 12.500 PERTSONA BAINO GEHIAGO BILTZEN DIRA PLAZAN 2.502 METRO KOADROTAN. TXUPINAZOAREKIN FESTEK EZTANDA EGITEN DUTE ETA IRUÑERA ETORTZEN DIREN GUZTIEK ZAPI GORRIA LEPOAN LOTZEN DUTE.

ZER DA ETA ZEIN DA BERE HISTORIA?

Txupinazoa festen berri ematen duen suziria da, etenik gabeko 204 orduko jaigiroari hasiera ematen diona, uztailaren 6ko eguerdiko 12etatik uztailaren 14ko gauerdiko 12etara. Festen hasiera programako ekitaldirik enblematiko eta jendetsuenetako bat da.

Txupinazoa nahiko ekitaldi berria da. Lehenengo 1941ean jaurti zen Joaquín Ilundain alkateordeak eta Jose Maria Salazar kazetariak hala proposatuta.

Alabaina eta kronikek deritzenez, Kale Nagusiko Juan Etxepare izeneko tabakosaltzailea izan zen Iruñeko Udalaren baimena eskatu eta eskuratu zuen



lehenengo, hain zuzen, 1931n uztailaren seian eguerdiko hamabietan kalean eta gaztez inguratuta suziriak botatzeko.

Gaur egun, 12.500 pertsona baino gehiago biltzen dira Udaletxeko Plazan (2.502 metro koadroko azalera duena) jaiei hasiera ematen dien hitzaldia entzuteko eta suziria eztanda egiten ikusteko esperoan.

NOLAKOA DA?

Eguerdiko 12ak iritsi baino hiru minutu lehenago, metxa pizteaz arduratzen den pertsona balkoira ateratzen da udal mandatari batek eta suziria fabrikatzen duen Caballer pirotekniaren arduradunak lagunduta. Zain dauden bitartean, neskek eta mutilek «San Fermin, San Fermin, San Fermin» oihukatzen dute eta zapi gorriak altxatzen dituzte, festei hasiera eman ondoren lepoan lotuko dutena.

Klarineroek unearen berri ematen dute eta, gaztelaniaz zein euskaraz egiten den agur tradizional elebidunaren ondoren, eta jaurtitzen duen pertsonaren arabera ezberdina da, hautatutako pertsonak tradizioak agintzen duen moduan honakoa esaten du: «Pamploneses, pamplonesas. ¡Viva San Fermin! Gora San Fermin!».



Festei hasiera ematen dien ekitaldia plazako inguruetatik ere jarraitu daiteke eta, aglomerazio gutxiagorekin, baita hiriko beste puntu batzuetatik ere Udalak Gazteluko plazan, Sarasate Pasealekuan, Foruen Plazan eta Antoniutti Parkean jartzen dituen pantaila erraldoietan.


ETA NOR IZANGO DA AURTEN TXUPINAZOA BOTAKO DUENA?

Duguna Iruñeko Dantzariak taldea arduratuko da 2024ko sanferminetako txupinazoa botatzeaz. Dantza-taldea izan da hiritarren aldetik babes handiena izan duen hautagaitza, 3.971 boto eskuratu baititu. Guztira 10.159 lagunek parte hartu dute bozketan, eta parte-hartze handiena izan den bigarren urtea da. Gainera, Duguna taldeak 75 urte betetzen ditu aurten. Duguna Iruñeko Dantzariak taldeak 150 bazkide eta 50 dantzaritik gora ditu.

Dantza-taldearen hautagaitza hiriko jai garrantzitsuenetan Udalbatzari

laguntzeagatik eta Iruñeari ondare koreografiko propioa emateko egindako lanagatik sustatu zen. Izan ere, Duguna 2007an hasi zen hirirako dantzak ikertzen eta berreskuratzen. Hortik sortu ziren Aldapako sanferminetan dantzatzaren duten ezpata-dantza eta San Blas, San Juan eta Batasunaren Pribilegioan kaleetan zehar dantzatzen den soka-dantza.

Horri guztiari gehitu behar zaio 2024an Iruñeko Udalak berak 1949an udaleko dantza-talde gisa sortu zueneko 75. urteurrena ospatzen duela. Une hartan helburua Udalbatzari laguntzea zen, eta, berez, dantzariak Hiri Gorputzean parte hartzen dute Iruñeko ekitaldi garrantzitsuenetan. Ordutik, Duguna dantza-taldea indarra eta garrantzia hartzen joan da, eta hiriko dantza-tradizioaren babesle bihurtu da. Zazpi hamarkada hauetan zehar, unerik aipagarrienetan egon da, besteak beste, Iruñeari Zitudadela ematean, parke eta hiribideen, Labrit pilotalekuaren eta Sadarren inaugurazioetan eta Nafarroako Gobernuak duela gutxi Hiri Gorputza Interes Kulturalerako Ondasun izendatu zuenean. Gainera, Duguna Iruñearen ordezkari izan da atzerriko topaketetan, besteak beste, 1965ean New Yorkera egindako bisitan, Erraldoi eta Burugandien Konpartsarekin batera, Okayamara (Japonia) egindako bisitan 1991n eta Polonian 1996an.



ENTZIERROA

GOIZEKO 8AK. 6 ZEZEN. 848,6 METRO. ENTZIERROA LASTERKETA AZKARRA ETA BORTITZA DA ETA URDURITASUNAK HARTUTA EGOTEN DA. MINUTU GUTXI BATZUETAN, MUTILAK, ETA GEROZ ETA NESKA GEHIAGO ETA ZEZENAK ELKARREN AURKA LEHIATZEN DIRA ZEZEN PLAZARA IRISTEKO. HAIK DIRA PROTAGONISTAK BAINA UNAIAK, POLIZIAK ETA LARRIALDIETAKO ZERBITZUEK URTETIK URTERA JENDETSUAGOA DEN ENTZIERROA ARAZORIK GABE IGARO DADIN LORTZEN DUTE.

ZER DA ETA ZEIN DA BERE HISTORIA?

San Fermin festen ikurren bat badago, entzierroa da. Funtsean, behar bezala hesituta dagoen kale zati batean zezenen aurrean korrika egitean datza.

Entzierroaren xedea zezenak Santo Domingoko eskortetatik Zezen Pazara garraiatzea da; arratsaldean han jokatuko baitituzte.

Osotara, sei zezen basatik eta haiek gidatzen dituzten bi joaldun taldek korrika egiten dute. Bigarren saldoak minutu batzuen buruan egiten du korrika atzean gera litezkeen zezenak biltzeko. Ibilbidea Iruñeko alde zaharreko hainbat kaletan barna igarotzen da eta 848,6 metro neurtzen ditu.

Jatorrian (XIV. mendea), entzierroa ez zen festen egutegiaren barnean sartzen, aitzitik zezenak hiriko aldirietatik plazara garraiatzeko beharretik sortu zen, arratsaldeko zezenketan toreatuak izan zitezten. Denborarekin mutilek ibilbidera salto egiteko ohitura (hori) Sanferminetako ekitaldirik garrantzitsuenean bilakatu zen.

Entzierroa berez 1876ko ekainaren 28an onetsi zen. 1922an gaur egungo Zezen Plaza inauguratu zen eta orduz geroztik entzierroak gaur egun duen ibilbidea du.

NOLAKOA DA?

Entzierroa goizero 8:00etan egiten da uztailaren 7tik 14ra. Korrika egin ahal izateko ibilbidean 07:30ak baino lehenago kokatu behar da, Santo Domingoko aldaparen eta Udaletxeko Plazaren artean. Tradizioak agintzen du entzierroa hasi baino lehen korrikalariek, egunkaria eskutan dutela, San Fermini babes ditzan eskatzea. 3 aldiz egiten dute eskaera Santo Domingo aldaparen aurrean dagoen horma-hobiaren aurrean, zeina peñen zapiak dituen panel batekin apainduta dagoen.

KANTIKA

Neskak eta mutilak haien burua San Fermini gomendatzen diote karreran zehar babes ditzan eskatuz 07:55, 07:57 eta 07:59an santuaren horma-hobian, Santo Domingo aldapan. Tradizio hau 1962ko Sanferminetan hasi zen, «El Tuli» goitizena duen Jesus Ilundain Zaraguetaren eskutik. 85 urte dituen iruindarra da eta Los de Bronce peñako 1 bazkide zenbakia dauka. Uztailak 10 batean, Villamartako zezenekin eta laguna duen beste iruindar batekin belauniko jarri zen eskorten aurrean, ez garai hartan zegoen horma hutsartearen aurrean, eta «Entzun arren San Fermin» abesten hasi ziren.

8:00etan lehenengo suziria jaurtitzen da. Suziriak ganadua biltzen duen Santo Domingoko eskorten atea irekitzen dela adierazten du. Bigarren suziri batek

zezenak dagoeneko eskortetatik atera direla eta unaiek


xaxatzen dituztela iragartzen du. Entzierroko ibilbidea tarte ezberdinetan bereiz daiteke. Haietariko bakoitzak bere berezitasunak eta ezaugarriak ditu.




ENTZIERROAREN IBILBIDEA



- 1 Santo Domingoko aldapa
- 2 Udaletxeko plaza-Merkaderes
- 3 Merkadereseko bihurgunea
- 4 Estafeta kalea
- 5 Telefonikako bihurgunea
- 6 Hesi-atzea
- 7 Zezen plaza





1 SANTO DOMINGOKO ALDAPA

Lehenengo tartea Santo Domingoko aldapa da, 280 metrokoa. Tarte honen ezaugarri nagusiak duen malda handia eta zezenak taldekatu ohi direla dira. Tarterik azkarrena eta, aldi berean, arriskutsuena da zezenak indar handiz joaten direlako.

2 UDALETXKO PLAZA- MERKADERES

Bigarren tartea Udaletxeko Plazari eta Merkaderesi dagokie. 100 metroko luzera du eta ibilbideko tarterik zabalena da.





3 MERKADERESEKO BIHURGUEA

Merkaderes kaleak amaieran 90 graduko bihurgune bat du eskuinera. Bihurgune hau ezaguna da lehen leku honetan zezen gehienak erori eta saldoak desegiten zirelako. Galtzadan antilabaingailua gehitu zen eta jada ez da horrelakorik gertatzen.

4 ESTAFETA KALEA

Hurrengo tartea Estafeta kalearena da. 304 metroko luzera duen kale honen ezaugarri nagusiak estua dela eta korrikalariak zezenen aurrean kokatzeko aukera dutela dira, zezenak ordurako nekatuago baitaude. Tarterik ezagunena eta jendetsuena da. Bitan bereizten da: Estafeta-Xabier Jaitsiera, % 2ko malda arin bat duena, eta Xabier Jaitsiera-Telefonika, non saldoa sakabanatu ohi den.






5 TELEFONIKAKO BIHURGUNEA

Plazan sartu aurretik, lasterketa Ahumadako Dukea kaletik igarotzen da, «Telefonikakoa» izenez ezagutzen den tarte. 100 metroko tarte bat da, non ibilbidea berriro zabaldu egiten den eta zezenak mantsotu egin ohi diren.

6 HESI-ATZEA

Zezen Plazako hesi-atzera iristean ibilbidea estutu egiten da berriro, hainbesterako non hainbat lasterketatan eroritako korrikalariengatik pilaketak sortu izan diren. Korrikalariak hesi-atzean kokatutako zuloetan babestu daitezke. 25 metroko luzera duen beheranzko tarte bat da



7 ZEZEN PLAZA

Entzierroa Zezen Plazan bukatzen da. Bertan neskak eta mutilak haizemaile itxuran sartzen dira eta zezenei pasatzen uzten diete eskortetarantz lerro zuzenean bideratu daitezten, bikoiztaileen laguntzarekin. Zezen guztiak zezen plazara iristen direnean hirugarren suziria jaurtitzen da. Laugarren eta azken suziriarekin, zezen guztiak plazako eskortetan sartzen direnean, entzierroa amaitu egiten da.

Entzierroaren ondoren, Zezen Plazan adarretan bolak jarrita dituzten bigantxak aske uzten dira. Ekitaldi honek sekula hildakorik eragin ez duen arren, zauritu ugari ekarri izan dira. Horietako bat Ernest Hemingway izan zen. 1924ko uztailaren 8an adarretan bolak zituen zekor bat adarretatik eusten saiatu zen eta indarrez irauli zuen.

SEGURTASUNA

Entzierroko segurtasuna berau ongi joan dadin funtsezko alderdietako bat da. Ehunka pertsona horretaz arduratzen dira.

POLIZIAK

160 polizia-agente inguru, horietatik 120 Iruñeko Udaltzaingokoak. Goizeko 4etan Entzierroko ibilbidetik, ikusleak baztertzen dituzte garbiketa zerbitzuko langileen lana errazteko eta zurginek hesia jarri ahal izan dezaten. Horrez gain, lehenengo hesiko ikusleak joanarazten dituzte, osasun zerbitzuentzat, poliziarentzat eta baimendutako komunikabideentzat gordeta dagoena. Halaber, entzierroa ongi joan dadin, mozkor egiteagatik korrika egiteko moduan ez dauden pertsona horiek ibilbidetik kentzen dituzte.

OSASUN-LANGILEAK

Hesiaren ondoan antolatutako arreta sanitarioa emateko 9 postuk osatuko dute entzierroetako zaurituak artatzeko egitura berezia, horietan medikuak, erizainak eta sorosleak izango dira, eta beste 8 laguntza puntu izango dira sorosleekin hornituta; horiei guztiei Plazako erizaintza bera gehitu behar zaie. 848 metro luze da entzierroa eta sorospen puntu bat izango du gutxi gorabehera 50 metroko. 112-SOS Navarra Zentrotik koordinatuko da arreta emateko egitura osoa.

Puntu hauetan egokituko dira postu horiek: Santo Domingo kaleko aldaparen hasieran (Hezkuntza Departamentuaren egoitzan), Nafarroako Museoko eskaileretan, Santiago Plazan (Udaletxearen gibelaldean), San Saturnino kaleko eskaileretan, Udaletxean (2),

Mercaderes kalean (2), Xabierreko Jaitsieran (2), Espoz y Mina Zeharkalean, Telleria kalean, Ahumada Dukearen kalean, Labriteko jaitsieran, Amaia kalean («Telefonica» edo hegoaldeko kale txikia), Hemingway pasealekuan (iparraldeko kale txikia) eta Zezen Plazan (plazako sorospen eta erizaintza postua).

Garraio sanitarioako egiturak medikuez hornitu daitezkeen 15 anbulantzia dauzka entzierroaren luzeran zehar, horietatik 2 Gaztelu Plazan erresalbuan, 112-SOS Navarra Zentrotik garraio sanitario gehiago behar duen entzierro bideko puntura bideratzeko.


Gutxienez 9 medikuk, 9 erizainek, 21garraio teknikariek, 47 soroslek 9 komunikazio langilek eta postuetako 8 koordinatzailek osatuko dute laguntza emateko egitura hau.

Gurutze Gorriaren, DYaren eta Osasunbidea Nafarroako Osasun Zerbitzuaren langile sanitarioekin, laguntzaileekin eta balibideekin emango da arreta entzierroaren bidean. Horretarako, arreta emateko postuetan artatuko dute zauritua eta, hala dagokionean, Nafarroako Ospitalera eramango dute anbulantzia ezlekitu zaien tokitik; denbora errealean emango diote SOS Navarraren 112 Koordinazio Zentroari artatutako pertsonen zaurien eta lesioen berri.

SOS Navarraren 112 Koordinazio Zentroa arduratuko da osasun laguntza antolatzeaz eta zaurituak osasun zentroetara bideratzeaz, zauritu larrienak Nafarroako Ospitalera edo 112-SOS Navarrak erabakitzen duen zentrora iristen lehenak izan daitezten. Horregatik, aurreko urteetan finkatu bezala, hesi ondoan artatutako zauritu arinak behin zauritu larrienak ospitalera eraman ondoren eramango dira eraman beharreko zentrora.



DATUAK



BATEZBESTEKO IRAUPENA:

3 m 55 s.

ZEZENAREN BATEZBESTEKO ABIADURA:

24 km/h.

ENTZIERROK LUZEENA:

30 minutu (1959ko uztailearen 11). Miura bat atzean geratu zen eta zakur bat erabiltzea beharrezkoa izan zen zezena hozkatu zezan eta zezena eskortetan sartzea lor zedin.

ENTZIERROK TRAGIKOENAK:

1947ko uztailearen 10a eta 1980ko uztailearen 13a. «Semillero» (Urquijo ganadutegia) eta «Antioquio» (Guardiola ganadutegia) zezenek, hurrenez hurren, bina korrikalari hil zituzten.

GANADUTEGIRIK BETERANOENA:


Aurten, 2024an, Miuraren zezenek 41. entzierroa egingo dute. Ganadu horien portaera beti noblea izan da, eta larunbat eta igandeetako entzierro jendetsuenetarako gogokoena izatera iritsi da. Baina dagoeneko ez da beti horrela izaten; izan ere, nobleak eta handiak izaten jarraitzen duten arren, azken urteotan zezen horiek abiadura handiagoa hartzen joan dira eta arriskutsuagoak bihurtu dira. Miuraren zezenek, 1980tik 2000ra, adarkada bakarra eman zuten parte hartu zuten entzierro guztiak batuta. 2000tik 2023ra, hemezortzi eman zituzten.

GANADUTEGIRIK ARRISKITSUENA:

Guardiola Fantoni. Hildako 1 1969an eta 2 1980an.


ZAURITU-KOPURUA:


2023ko entzierroetan guztira 3 korrikalari zauritu ziren zezenen adarkaden ondorioz. Guztira 34 pertsona eraman zituzten Nafarroako Unibertsitate Ospitalera entzierroetan zaurituta. Adarkadak hilaren 8ko (zauritu 1), 9ko (zauritu 1) eta 13ko (zauritu 1) entzierroetan izan ziren.



2.000 KORRIKALARI:

Entzierroan korrika egiteko prestakuntza fisiko bikaina izan behar da. Horregatik, normalean korrika egiten dutenak egunero zaindu eta prestatu egiten dira lasterketan parte hartu ahal izateko. Festak beste era batean bizi dituzte, gaupasarik egin gabe eta gehiegikeriak saihestuz. Asteazken zehar, entzierroak egunero 2.000 korrikalari inguru izan ditzake; asteburuan ordea, zifra hori bikoiztu egin daiteke. Korrikalarien batezbesteko adina 28 urtekoa da eta 100 metro inguru korrika egin ohi dituzte. Entzierroa hasi aurretik, korrikalariak minutuko 148 pulsazioetaraino iritsi daitezke.





HESIAK 2.700 TABLOI ETA 900 ZUTOIN:

Hesia lehenengo aldiz 1776an ezarri zen entzierroaren ibilbidea mugatzeko eta segurtasun hesirik garrantzitsuen da. Ekaineko lehenengo egunetan, Gareseko Aldaz Remiro zurdindegiko lau langile entzierroaren hesia jartzen hasten dira. Ibilbidearen 848,6 metroetan osotara 2.700 tabloi, 900 zutoin edo pikete eta


4.000 ziri kokatzen dituzte zutoinak zuloetan ongi josteko. Gainera, ibilbidetik ateratzeko hesitura osoan zehar 70 ate daude eta zezenak igarotzen diren heinean ibilbidea ixten joaten diren beste 6 ate atzera egin ez dezaten. Festen azken egunetan, uztailearen 14an, 85 pertsona inguruk hesi osoa desmuntatzen eta biltzen dute.

EGUNKARIA:

Korrikalari gehienek biribilkatutako egunkari bat erabiltzen dute zezenarekiko distantziak neurtzeko eta, beharrezkoa bada, haien arreta deitzeko.


UNAIEN AUSARDIA:

Makilak eskuan zezenen atzean doazen unaiak Zezen Plazaraino eramaten dituzte. Unaien beste zeregin bat korrikalariak zezenari atzetik deitzea saihestea da, kontrako norantzean itzuli eta erasotzeko arriskua baitago.



ZEZEN PLAZA:

Gaur egungo Zezen Plaza 1922ko uztailearen 7an estreinatu zen. Marcial Lalanda, Saleri II eta Juan Luis de la Rosa zezenketariak inauguratu zuten. Vicente Martinezen ganadutegiaren entzierroan ehunka zauritu eragin zituen pilaketa bat sortu zen hesi-atzean.



ENTZIERROETAN ZENDUTAKOAK

Historian zehar, entzierroan 16 hildako egin dira.

2009KO UZTAILAREN 10A

Daniel Jimeno Romero. 27 urte, Alcalá de Henares. Telefonikako tartean lepoan adarkatua. Jandilla ganadutegiaren zezena: «Capuchina».

2003KO UZTAILAREN 8A

Fermin Etxeberria Irañeta. 63 urte, Iruña. 2003ko irailaren 24an zendua. Merkadereseko tartean harrapatua. Cebada Gago ganadutegiaren zezena: «Castillero».

1995EKO UZTAILAREN 13A

Matthew Peter Tasio. 22 urte, Illinois, AEB. Udaletxeko Plazan harrapatua. Torrestrellaren zezena: «Castellano».

1980KO UZTAILAREN 13A

Vicente Risco. 29 urte, Badajoz. Zezen Plazan harrapatua. Guardiola Fantoniren zezena: «Antioquio».

1980KO UZTAILAREN 13A

Jose Antonio Sanchez Navascues. 26 urte, Cintruénigo, Nafarroa. Udaletxeko Plazan harrapatua. Guardiola Fantoniren zezena: «Antioquio».

1977KO UZTAILAREN 8A

Jose Joaquin Esparza Sarasibar. 17 urte, Iruña. Hesi-atzean harrapatua. Eduardo Miuraren zezena: «Silletero».

1975EKO UZTAILAREN 9A

Gregorio Gorriz Sarasa. 41 urte, Arazuri, Nafarroa. Hesi-atzean harrapatua. Fco. Javier Osborneren zezena (Jerez de la Frontera, Cádiz): «Navarrico».

1974KO UZTAILAREN 12A

Juan Ignacio Eraso Martiartu. 18 urte, Iruña. Telefonika eta hesi-atzearen artean harrapatua. Herederos de Don Manuel Arranzaren zezena (Salamanca): «Palmello».

1969KO UZTAILAREN 12A

Hilario Pardo Simón. 45 urte, Murchante, Nafarroa. Santo Domingoko Aldapan harrapatua. Salvador Guardiola Fantoniren zezena: «Reprochado».

1961EKO UZTAILAREN 9A

Vicente Urrizola Isturiz. 32 urte, Iruña. Santo Domingo Aldapan harrapatua, Udaletxeko Plazaren hasieran. Alvaro de Domecq-en zezena.

1947 UZTAILAREN 10A

Julian Zabalza. 23 urte, Atarrabia, Nafarroa. Zezen Plazan harrapatua. Don Antonio Urquijoren zezena (Murubes): «Semillero».

1947KO UZTAILAREN 10A

Casimiro Heredia. 37 urte, Iruña. Estafetan harrapatua. Don Antonio Urquijoren zezena (Murubes): «Semillero».

1935EKO UZTAILAREN 10A

Gonzalo Bustinduy y Gutierrez de la Solana. 29 urte, San Luis de Potosí, Mexiko. Zezen Plazan harrapatua. Doña Carmen de Federicoren zezena (Murubes).

1927KO UZTAILAREN 8A

Santiago Martínez Zufia. 34 urte, Iruña. Zezen Plazan harrapatua. Don Celso Cruz del Castilloren zezena (Toledo).

1924KO UZTAILAREN 13A

Esteban Domeño Laborra. 22 urte, Zangotza, Nafarroa. Hesi-atzearen lehenagoko tartean harrapatua (gaur egungo Telefonika). Conde de Santa Colomaren zezena (Andaluzia).

1910EKO UZTAILAREN 7A

Francisco Garcia Gurrea. 21 urte, Faltzes, Nafarroa. 1911ko urtarrilaren 21ean zendua. Zezen plaza zaharraren sarreran harrapatua (Gayarre Antzokitik hurbil). Villagodioren zezena.



ZER DA ENTZIERRO TXIKIA?

Sanferminetako lehenengo zezen ekitaldia entzierriloa da. Gauero, uztailaren 6tik 13ra, zezenak gaseko eskortetatik Santo Domingoko eskortetara eramaten dira.

Ibilbidea gaueko 10etan egiten da isiltasun osoan eta oso argi gutxirekin. Ibilbideak 400 metro inguru neurtzen ditu.

Debekatuta dago entzierrilooan argazkiak ateratzea. Ikusi ahal izateko, Udaletxeak festak hasi baino egun gutxi batzuk lehenago dohainik ematen dituen baime-netako bat eskuratzea beharrezkoa da.

IBILBIDEAN SARTZEA


7:30AK




Ibilbideko hesiak 7:30ean ixten dira.

7:45AK

Entzierroko hesian sartzeko baimena duten komunikabideak ibilbidean egon daitezke 7:45ak arte. Ordu horretan, hesiaren artean lekua hartu beharko dute, Udaltzaingoak baimena ematen duenean izan ezik.

ENTZIERROKO HESIAK, PRENTSA AKREDITATUARENTZAT



-  Debeكاتuta
-  Prentsa baimenduna
-  Onartuta

2024KO ENTZIERROETAKO GANADUTEGIAK

7an
LA PALMOSILLA

8an
CEBADA GAGO

9an
VICTORIANO DEL RÍO


10ean
FUENTE YMBRO

11n
DOMINGO HERNÁNDEZ MARTÍN

12an
JANDILLA

13an
JOSÉ ESCOLAR


14an
MIURA



ENTZIERROAN KORRIKA EGITEKO ARAUAK

Entzierroan korrikariek Poliziaren eta unaien oharrak errespetatu behar dituzte beti. Entzierroko korrikarientzako oinarrizko 7 arau daude. Arau horiek urratzeak hausleari zigor ekonomikoa jartzea dakar.

- 1** Debekatuta dago zorroekin, motxilekin edo lasterketa oztopatu dezaketen elementuekin korrika egitea.




- 2** Debekatuta dago txankletekin, oinetako desegokiekin edo oinutsik korrika egitea.




- 3** Debekatuta dago mozkor, drogen eraginpean edo baldintza fisiko eta psikiko osoetan egon gabe korrika egitea.




- 4** Debekatuta dago entzierroaren ibilbidean egotea, zezenen aurrean korrika egiteko asmorik izan gabe.




- 5** Debekatuta dago zezenak ukitzea.



- 6** Debekatuta dago zezenei atzetik eraso eginaraztea edo haien arreta deitzea.



- 7** Debekatuta dago korrika egiten den bitartean ibilbideari argazkiak ateratzea edo irudiak grabatzea.



FESTA KALEAN

SANFERMINAK BATEZ ERE HIRIKO KALEETAN BIZI DIREN FESTAK DIRA. BERTAN, OINEZKOAK PEÑEKIN EGIN DEZAKE TOPO, ETA HAIEN TXARANGEN ERRITMOAN DANTZA EGIN, BURUHANDI ETA ERRALDOIEN KONPARTSAREKIN BATERA IBIL DAITEKE, BAI ETA KALE ANTZERKIAK IKUSI, GAUEKO SUEKIN GOZATU, ETA NOLA EZ, ERDIGUNEKO HAINBAT PLAZATAN IZATEN DEN MUSIKA ESKAINTZA ZABALAZ GOZATU ERE.

ZERGATIK ZURIZ ETA GORRIZ?


Sanferminetan Iruñeko jantzia eramatea da ohikoena; alegia, alkandora, galtza edo gona zuriak eta jaietako zapi eta gerriko gorriak. Festetan, ia jende guztia joaten da «uniforme» hori soinean duela, eta irudi zuri-gorri ikusgarriak eratzen dira. Ez dakigu zehatz-mehatz zergatik aukeratu zuten jantzi hori, ezta nork asmatu zuen ere; baina onartu behar dugu jende guztia jai giroan murgiltzea lortzen duela.

Janzteko erraza den arropa horri esker, bertakoek zein kanpokoek eraman ohi dute, eta jende uholde zuri-gorriak sortzen dira han-hemenka; hots, sanferminen ezaugarri bereizleak diren bi koloreez osatutako uholdeak. Iruñeko «jantzi» horren jatorria, baina, ez da oso argia. Hala, denboraren poderioz erabat errotu den herri ohitura hori azaltzen ahalegintzen diren hainbat teoria daude. La Veleta peñako bazkideak jo izan dituzte sortzailetzat. Peña hori 1931. urtean sortu zuen herri xeheak; langileak ziren gehienak. Euren burua identifikatzeko eta beste elkarte batzuetakoetatik bereizteko baliagarria zen uniforme gisako baten bila zebiltzanean aukeratu zuten.

Izan ere, arropa zuria nahiko erraza zen lortzen, eta gainera, arrazoizko prezioa zeukan zeinahi poltsikorentzat. Bestalde, ondo betetzen zuen bereizteko helburua, oso kolore ikusgarria baita berez, eta gorriarekin batera, are erakargarriago geratzen zena. Ziur asko arrazoi horiek direla tarteko, janzkera hori festan parte hartzen zuten pertsona guztietara zabalduz joan zen.

Zapi gorria ezinbesteko ezaugarria da sanferminetako giroan erabat murgiltzeko. Tradizioak dioenaren arabera, festei hasiera ematen dien txupinazoaren ostean lotu behar da zapia lepoan, eta hantxe eduki behar da festak amaitzeko egiten den «Pobre de mí» ekitaldira arte. Zapiaren esanahiari eta sinbolismoari buruz, ez dago adostasunik; aitzitik, hainbat bertsio daude. Tradizioaren arabera, zapiaren kolore gorria San Ferminen martirioaren oroigarria da,

III. mendeko jazarpenetan Amiens hirian burua ebaki baitzioten. Gorriak, beraz, santuaren odola sinbolizatuko luke.



IRUÑEKO PEÑAK

Kaleko festen ezaugarri garrantzitsua dira peñak. Sanferminetan 17 peña daude: 16 Iruñekoak bertakoak dira eta bat Antsoaingoa. Lagun talde edo koadrilen elkarretaratzeak dira. Bakoitzak bere egoitza eta sinboloak (pankartak, armarriak, koloreak, blusa luzeak...) izaten ditu, bai eta egitarau estua ere, sanfermin guztietan zehar. XIX. mendean zezenetara joateko elkartzen ziren lagun taldeetatik sortutakoak dira. XX. mendean elkarte gisa antolatatu ziren, eta ehunka bazkide dituzte. Peñen izenek, oro har, hiriko auzo edo kirol elkarteei egiten diete erreferentzia.

Peña bakoitzak ezin konta ahala ekintza antolatzen ditu bere egoitzan, baina bada bat, deigarriena dena: egunero, zezenketak amaitzean, egiten duten irteera, euren musika eta alaitasunarekin Iruñeko kaleak janzten dituztela.

Zezenketek iraun bitartean zezen plazan bertan ere ikuskizun paraleloa sortzen dute. Peñek kideek harmaila estaligabeak betetzen dute, eta txarangek zezenketa alaitzen dute. Horregatik, Iruñeko zezen plazan sekula ez da izaten zezen plazetan ohikoa izaten den heriozko isiltasun hori.

Peñak zezentegien gainean jartzen dira eta 5., 6. eta 7. harmaila estaligabeetako zati bat ere betetzen dute. Goi harmaila estalkidunean (harmailen goi-goiko aldean), peñetako kideek 11., 12. eta 13. sekzioak betetzen dituzte; harmailetan, berriz, 6. eta 7. sekzioak.

NAZIOARTEKO PEÑAK

Urte batean bai eta hurrengoan ere bai turista eta zale ugari hurbildu izan da sanferminetara, eta horren ondorioz, gure mugetatik kanpo ere hainbat peña sortu dira. Besteak beste, hauek daude: Suediako Peña, Suediarrak, New Yorkeko Zezenketa Kluba, Miamiako Iruñeko Lagunak, Alemaniako Borussia Peña, Frank britainiar peña eta Frantziako La Gite (Joera) eta Les Chauds (Beroak) peñak. Peña horiek urtero gehitzen zaizkio festari, eta hala, tradizionalen gisa jokatzeko dute. Horietako batzuk, gainera, bertako zenbait baino lehenago sortutakoak dira.

PEÑEN ARMARRIAK



Armonía
Txantreana
1956



El Bullicio
Pamplonés
1932



S.C.D.R.
Irrintzi
1951



Aldapa
1947



Sanduzelai
1980



Donibane
1978



S.D.R.C.
La Jarana 1940



Oberena
1941



Alegría
de Iruña
1953



Anaitasuna
1949



S.C. Muthiko
Alaiak
1931



Rotxapea
1978



El Charco 1977



7 de Julio
San Fermín
1971



Los de Bronce
1950



La Única
1903



Mutilzarra
1992

ZER DA RIAU RIAUA?

Riau Riau izeneko tradizioa Iruñeko jendearengatik egiten dutena da.

Udalbatzarekin batera joaten dira Udaletxe plazatik San Lorentzo Elizara. San Ferminen ohorez egiten diren Bezperetan parte hartzeko. Astrainen Bals ezaguna da La Pamplonesak interpretatzen duen musika pieza. Balsaren leloari gehitzen zaion azken ukitutik datorkio, hain zuzen, izena. Ignacio Baleztena karlistak sustatu zuen ekintza hau 1914an, beste alderdiko Udalbatzaren ibilia galarazteko asmoz.

Hasiera batean, ordubeteko iraupena zuen, baina urteen poderioz, luzatzen eta luzatzen joan zen. 1980an hautsi zuten iraupen marka: bost ordu eta 170 interpretazioren buruan, bertan behera utzi behar izan zuten. Dena den, bertan behera uzteak askoz lehenagotik datoz. 1927an, esaterako, lehenengoz debekatu zuten. 1972an, Javier Rouzaut jarduneko alkateak bertan behera utzi zuen Riau Riau ospakizuna, 45 minutuko itxaronaldiaren ostean. 80ko hamarkadan, bata bestearen atzetik etorri ziren bertan behera uzteak, ibilbidean zehar izaten ziren gorabeherak zirela tarteko. 1991n, azkenik, gehiago ez egitea erabaki zuten, behin betiko. 2002. urteaz gero, Iruñeko erretiratuen hainbat elkarte eta Mutilzarra peña beste Riau Riau bat antolatu nahian dabilta, ekitaldia berreskuratzeko asmoz.

ZER DA ESTRUENDOA?

Sanferminetako misterio handienetako bat da; izan ere, sekula ez da jakiten noiz egingo den, ez baita ezein egitarautan jasota ageri. Alabaina, 55. edizioa du dagoeneko.

Sanferminetan ohikoa den moduan, edonorentzat atek irekita dituen ekintza izaten da, baina ezinbestekoa da baldintza bat betetzea: dunbal, danbor, txistu edo zarata ateratzeko moduko beste zeinahi instrumenturekin agertzea, hain


justu. 1964ra egin behar dugu atzera, burrunbaren sorrerara iristeko. Irrintzi peñako kideek musika ikuskizunik ez zegoen gauetan inguruak alaitzea erabaki zuten.

Asteko egun batean egiten da, baina sekula ez da iragartzen edo egitarauetan jasotzen. Ahoz aho eta hedabideen bitartez zabaltzen dute. 23:59an hasten da, eta ehunka lagun biltzen dira Martzeliano Etxe zaharrean (Merkatu kalea), zarata ateratzeko baliagarria den edozein instrumentu hartuta. Ordu horretan, ibilbide bati ekiten diote, hainbat orduan Alde Zaharreko kaleetan zehar egiten dutena. Martzeliano Etxean *Agur Jaunak* jo ondoren, Udaletxe plaza zeharkatzen dute, eta atzetik, Zapateria kalea, San Nikolas, Gazteluko plaza, Karlos III, Espoz y Mina kalea, Estafeta eta Udaletxe plaza. Eta Kale Nagusian amaitu ohi da, San Cernin putzu txikiaren gainean, San Saturnino Elizaren parean. Han, berriz interpretatzen dute *Agur Jaunak*, agur moduan.

ERRALDOI ETA BURUHANDIZ OSATUTAKO KONPARTSA PAREGABEA

Erraldoi eta buruhandien konpartsaren desfilea dugu sanferminetako ekintza jendetsuenetako bat. 4 erraldoi bikote, 5 buruhandi, 6 kiliki eta 6 zaldiko. Guztiak dira harri-kartoiz egindako pertsonaiak, eta Iruñeko kaleak alaitzen dituzte uztaïlaren 6ko arratsaldean eta 7tik 14rako goizetan. 1860an sortutako konpartsa horretan ia ehun lagun dabilta gaur egun, irudi eramaileak eta gaita jotzaileak zenbatuta.

Erraldoiek kalejiren erritmoan zeharkatzen dituzte kaleak. Erraldoi bakoitzak dultzainen jotzaileen talde baten erritmoan egiten du dantza; eta azkenak (amerikar erregina izaten da beti), berriz, txistulariengan. 1860an Tadeo Amorenak sortutako 8 irudi dira, eta lau errege-erregina bikote irudikatzen dituzte: europarrak, asiarrak, afrikarrak eta afroamerikarrak. 3,85 m eta 3,90 m arteko garaiera dute, eta eramaten duen pertsonaren gainean jarrita, 4,20 m ere lor ditzakete. Pisua, berriz, 55,8 kilotik 62,5 kilora artekoa da, nahiz eta eramateko zailtasunik handiena ez den pisua, baizik eta nola dagoen banatuta pisu hori eta hainbat faktorek (haizeak, esaterako) egiten duten erresistentzia. Izen hauek dituzte: Europako errege-erreginak (Josemiguelerico eta Joshepamunda), Amerikakoak (Toko-toko eta Braulia), Afrikakoak (Selim-pia El-calzaio eta Larancha-la) eta Asiakoak (Sidi Abb El Mohame eta Esther Arata).



Buruhandiak, berriz, bost dira, eta Félix Floresek eraiki zituen 1890ean. Metrotik gorako garaiera, bi metrotik gorako perimetroa eta 14 kiloko buru handiak izanagatik, paseatzea eta erraldoien aurretik ibiltzea beste helbururik ez dute, baita tarteka haurrei eskua ematea ere. Zehazki, alkatea, zinegotzia, amona, japoniar gizona eta japoniar andrea dira.

Kilikiak dira haurrengan izu handiena eragiten dutenak, haien zeregina maskuriarekin jotzea baita. Kilikiek 10-13 kilo artean pisatzen dute, eta izen hauek dituzte: Caravinagre, Verrugas, Napoleón, Patata, Coletas eta Barbas. Zaldikoak, berriz, nork bere zaldizkoa duten 6 zaldi dira, eta kilikiek bezalaxe, jendea puxikekin kolpatzen ibiltzen dira.

Zaldikoek 30 kilotik gora pisatzen dute, eta ez dute izenik: batetik seira artean daude zebakituta, besterik gabe.

Azken jaiegunean, konpartsak are protagonismo handiagoa izaten du. Lehenik eta behin, erraldoiek Udaletxe plazan egiten duten ohorezko dantzan, eta, ondoren, «agurra» izenez ezaguna den ekintza tradizionalan, Gazteluko plazan izanen da.





JAIALDIK ETA MUSIKA

Festa guztietan zehar musikaz blai egoten da hiria. Jota jaialdiak, txistulari kontzertuak, dantzaldiak eta rock kontzertuak... denetarik izaten da. Eta, nola ez, txarangen eta peñen musika, eguneko ordu guztietan kaleak betetzen dituztenak. Egitarau ofizialean 200etik gora musika ekintza daude jasota, eta Iruñeko kaleetan sei eszenatoki nagusi izaten dira horietarako.

- 1 GAZTELUKO PLAZA
KONTZERTUAK**
Egunero 23:30etik aurrera.
- 2 FORUEN PLAZA
DJ MUSIKA**
Uztailaren 6tik 13ra, 23:30etik 1:45era
- 3 ANTONIUTTI
DANTZALDIK**
Uztailaren 6tik 14ra, 21:00etatik 23:00etara eta 23:30etik 3:00etara (uztailaren 14an, 21:00etatik 23:00etara bakarrik).
- 4 GURUTZEKO PLAZA
MUSIKA BANDAK
DANTZALDIK**
Uztailaren 8tik 14ra. 13:00etan.
Uztailaren 6tik 14ra, 20:00etatik 22:00etara eta 23:30etik 1:30era
(uztailaren 12an, 20:30ean, kontzertua)
(uztailaren 14an, 20:00etatik 22:00etara bakarrik).
- 5 KONPAINIA PLAZA
BERTAKO ARTISTAK**
Uztailaren 6tik 13ra, 20:00etan
(uztailaren 6an 19:00etan).
JAZZA ETA MUNDUKO MUSIKAK
Uztailaren 7tik 13ra, 23:30ean.
- 6 SARASATE PASEALEKUA
JOTA-SOINUAK, FOLKLOREA DANTZEKIN
ETA BERTSOLARIAK**
Uztailaren 8tik 14ra, 12:00etan, jota-soinuak (asteartean, hilaren 9an, izan ezik, txistularien alardea izango baita).
Uztailaren 7tik 14ra, 19:00etan, folklorea.



SU ARTIFIZIALEN NAZIOARTEKO LEHIAKETA

Sanferminetan suak jaurtitzearen tradizioa XVII. mendekoa da. Jaiegun guztietan, 23:00etan, jendea Gaztelugibeleko zelaira joaten da, alegia, Ziudadela inguratzen duen eremu berde zabalera, eta uztaileen 6tik 14ra bitarte jaurtitzen diren suez gozaten dute. Egun bakoitzean piroteknia etxe bat arduratzen da Santa Mariako gotorlekutik suak jaurtitzear. Hala, etxe guztiek hartzen dute parte udalak antolatzen duen Nazioarteko Su Festen Lehiaketan.

Espainia (3), Italia (2), Danimarka, Frantzia, Herbehereak eta Erresuma Batuko su-etxeak izango dira.

SU ARTIFIZIALEN EGUTEGIA

Larunbata, uztailek 6

PYROPHONIA MEDITERRÁNEA (PYROPHONIA MEDITERRANEOA). Diseinatzailea: Gaspar Guaita Ruiz. Su-etxea: Turis (Valentzia, Espainia).

Igandea, uztailek 7

NATTENS MAGI (GAUAREN LILURA). Diseinatzailea: Gunnar Boerge Knudsen. Su-etxea: Højen & Magic Fyrværkeri ApS (Holstebro, Danimarka).

Astelehena, uztailek 8

LE CHARME À LA FRANÇAISE (XARMA FRANTSES ERARA). Diseinatzailea: Christophe Ubeda. Su-etxea: Ardi (Paris, Frantzia).

Asteartea, uztailek 9

PERSEIDAS (PERTSEIDAK). Diseinatzailea: Javier Lorenzo Martínez Castro. Su-etxea: Pirotecnia Oscense (Huesca, Espainia).

Asteazkena, uztailek 10

BRAVE VELOCITY! (AUSARDIA ZIZTU BIZIAN!). Diseinatzailea: Roeland Weijenburg. Su-etxea: Caffero (Berlicum, Herbehereak).

Osteguna, uztailek 11

LA DOLCE VITA (BIZITZA GOZOA). Diseinatzailea: Angelo Poleggi. Su-etxea: Poleggi (Canepina, Italia).

Ostirala, uztailek 12

MY DREAM IS... (NIRE AMETSA DA...). Diseinatzailea: Alessio Scarsella. Su-etxea: Scarsella Fireworks (Alatri, Italia).

Larunbata, uztailek 13

AD ASTRA (IZARRETARAINO). Diseinatzailea: Karl Mitchell-Shead. Su-etxea: Illusion Fireworks Ltd. (Wooton, Erresuma Batua).

Igandea, uztailek 14

CIUDADELA, ARTE Y MAGIA (ZIUDADELA, ARTEA ETA MAGIA). Diseinatzailea: Pedro Alonso Fernández Vidal. Su-etxea: Pibierzo (León, Espainia).

HAURRENTZAKO PROGRAMAZIOA

Txikienek haurrentzako hiru aisialdi-eremu izango dituzte Sanferminez gozatzeko. Askatasunaren plazako «Menudas fiestas», Takonera-Vistabellako «Birjolastu» jolasa eta Media Lunako «Sport Kids» dira. Espazio horiek doakoak dira eta urtero 300.000 parte-hartzaile baino gehiago biltzen dituzte.

1 TACONERA: «BIRJOLASTU JUEGOREJUEGO» JOLASA

Uztailaren 6tik 14ra:
11:30etik 14:00etara eta 17:30etik 20:30era
(6an arratsaldez bakarrik).

Takoneran, Vistabella ondoko Larraina parkean, «Birjolastu JuegoRejuego» jolasa irekiko da hirugarrenez eta haren ardatz nagusia materialak eta hondakinak berrerabiltzea izango da. 11 espazio ezberdin izango ditu, hogei bat artistek dinamizatuta.

Udalak antolatzen du Nafarroako Gobernuaren eta Iruñerriko Mankomunitatearen laguntzarekin, haurtxoetatik 12 urte bitarteko txikientzat pentsatuta dagoen espazioa da. Jolas kolaboratibo, sensorial eta esperimentalen proposamenak ditu eta, haietan, plastikozko hodiak, botilak eta pneumatikoak berrerabiliko dira, besteak beste, eta ekotzi zirenean xede zuten erabilera ez den beste zerbaitetarako erabiliko dira.

2 ASKATASUNAREN PLAZA: MENUDAS FIESTAS

Uztailaren 6tik 14ra: 11:30etik 14etara eta 18etatik 21etara (6an eta 14an, arratsaldez baino ez; eta 14an, 20ak arte baino ez).

Parkeak 11 jolas-eremu ditu, adin guztietarako eta askotariko gaietarako jarduerekin, guztiak doan. Karlos III.-ean puzgarriak, saltinga, pailazoak eta kaleko antzerkia egongo dira, baita Maese Villarejoren txotxongiloen ikuskizuna ere, Gorgoritoren abenturak kontatzen dituen eta 1954tik Sanferminetara etortzen dena.

3 MEDIA LUNA: KIROLARI SPORT KIDS

Uztailaren 7tik 14ra:
11:30etik 13:30etara eta 18:00etatik 20:30era.

Udalak eta Nafarroako kirol federazioek kirolanitzeko espazio hau eskaintzen dute; 8 eta 14 urte bitarteko neska- mutilentzat bideratuta dago eta Media Lunako hobietan kokatzen da. «Kirolari Sport Kids» doan programatzen ditu kirol-modalitate ezberdinetako jarduerak, adibidez, saskibaloia, padela, badmintona, esgrima, golfa, arku-tiroa, paseoak piraguan eta poneyan, herri kirolak, xakea, egokitutako kirolak, etab.

Atrakzioekin batera, **ZEZENSUZKOAK** ere, bizkarrean ikuskizun pirotekniko txiki bat daramala, ehunka haur biltzen ditu gauero. Zezena mutil batek gidatzen du, Santiago plazatik abiatzen da eta Udaletxeko plazaren inguruetan barna ibiltzen da 21:45ak aldera.

Zon▲ Joven

▼ #SanferminesPamplona

G▲zte Eremua



Consulta aquí toda
la programación /
Kontsultatu hemen
programazio osoa




Ayuntamiento de
Pamplona | Irufeko
Udala

1 GAZTE-EREMUA FORUEN PLAZAN

Foruen plaza 12 urtetik 17 urtera bitarteko gazteentzako jaien epizentroa izango da. Udalak musika eta ekintzak programatu ditu arratsaldeetarako, adin-tarte horren eta, oro har, gazteen eskaerei leku emango dien aisialdiko gune alternatibo bat sortzeko. Foruen plazako arratsalde gazteak uztailearen 7an hasiko dira, eta egunero era askotako aisia- eta jolas-jarduerak izango dira bertan 19:00etatik 22:30era bitartean.

HERRI KIROLAK ETA PILOTA

Sanferminetan, pilotazaleek binakako pilota txapelketaz gozatu ahal izango dute Labrit pilotalekuan. Uztailearen 14an izango da finala. Pilotaz gainera, herri kirolarekin ere izango da hitzordua eguerdiro, Foruen plazan. Hainbat modalitatekin lehiaketak eta erakustaldiak izango dira, eta horietako askok garai batean soron egiten zituzten lanekin dute zerikusia: aizkolariak, trontzalariak, motozerrariak, harri-jasotzaileak, etab.



ZER DIRA DIANAK?

Goizero 6:45ean «La Pamplonesa» udal musika banda Udaletxeko plazatik abiatzen da Alde Zaharreko kaleetan barrena Dianak joz. Lau partitura jotzen dituzte, orden aleatorioan eta ia etenik gabe. Jendetza biltzen da eta ibilbide osoan zehar musika- banda laguntzen dute, dianak abesten dituzte eta giroan dantza, txantxak eta umorea dira nagusi.

Iruñean esaten den moduan, Sanferminak festetan sortzen diren eta topatzen dituzun (edo topatzen zaituzten) une guztien batura badira, Dianak, zalantzarik gabe, unerik berezietako bat dira. Hasten diren ordua eta tokia direla-eta, minutu batzuetan eguneko lehen argi izpien azpian, Udaletxeko enparantzan aldi berean kointziditzen dute entzierroko harresia jartzen duten zurginek, ibilbidea garbitzen duten garbitzaileek, entzierroa ikusteko goiz jaiki direnek, oraindik gauari amaiera eman ez ditoenek... eta «La Pamplonesa» bandak bere musikarekin. Horrek guztiak oso testuinguru berezia sortzen du, umorea osagai nagusia duena, eta Dianak iruindarrek gehien maite duten ekitaldietako bat izatea eragiten du.

LA PAMPLONESA PAREKORIK EZ DUEN BANDA BAT

La Pamplonesa Udal Musika banda 1920an sortu zen Silvanio Cervantes, Manuel Zugarrondo eta Vicente Sádabak Udalari hiriarentzako banda zibil bat sortzea komenigarria zela azaldu ziotenean. Izan ere, lehen Sanferminetan jartzen zuten bandak militarrek ziren eta jendeak ez zituen ongi hartzen. Hiritarren eta militarrek zuzentzen zituzten musika banden arteko konexio falta horrek 1917an musika banda horiek desagertzea ekarri zuen.

Udal bandaren funtzioak ospatzen diren ekitaldi ofizial korporatiboak musikaz laguntzea, zezen plazan musika jartzea eta goizero entzierroa baino lehenago egiten diren Dianetan jotzea dira.

Gaur egun La Pamplonesa guztiz integratuta dago festetan eta jendearen maitasuna eta onespena ditu. Horren adibide argia Dianak dira, haietan Bandaren eta entzuleen arteko konplizitateak oso giro eta atmosfera berezia sortzen baitu.



BERDINTASU- NEAN OINARRI- TUTAKO SANFERMINAK

IRUÑEKO UDALAK BERDINTASUNEZKO SANFERMINAK SUSTATZEN DITU. ERASO SEXISTARIK GABEKO FESTAK, NON EMAKUMEEK ERA AKTIBOAN PARTE HARTUKO DUTEN ETA PROGRAMAZIOAREN PARTE IZANGO DIREN.

Festetan ez da iragarki, irudi ez hizkuntza sexistarik onartuko; erantzukizunak, zereginak eta zaintzak partekatuko dira emakume eta gizonak festez eta denboraz berdintasunean goza dezaten eta, batez ere, Sanfermin hauetan eta hiri honetan, Iruñian, emakumeek mugimendu eta ordutegi askatasunaz gozatu ahal izateko, ezeren beldur izan gabe. Horretarako Udalak, mugimendu eta eragile sozialen laguntzarekin, kanpaina bat abiarazi du herritarrek eraso sexista mota guztiak arbuiaitu ditzaten eta informazioa ematen du festetan emakumeen aurkako erasorik egotekotan, biktimei arreta eta laguntza emateko eta salaketak jartzeko.

«Eraso sexistarik gabe Iruña aske» kanpainak zera aldarrikatzen du, festa espazioek eta, orokorrean, hiri osoak, sanferminetan ere espazio seguruak izan behar dutela, non gizonen eta emakumeen arteko errespetuzko jarrerak neska eta emakumeei gozatzeko aukera emango dieten, inolako indarkeria, arrisku edo eraso sexistarik gabe, edozein intentsitatekoak direlarik ere.


Horretarako, udalak informazio gune bat ezarri ohi du Gazteluko plazan. Bertan, herritarrei informazioa eta orientazioa eskaintzen diete hainbat profesionalak, eta jendeak eskura izaten du larrialdiei, telefonoei eta arreta juridiko zein psikologikoari buruzko informazio guztia.



**¡PAMPLONA
LIBRE DE
AGRESIONES
SEXISTAS!**



**ERASO
SEXISTARIK
GABE,
IRUÑA ASKE!**



FESTEN IRUDIA HEDABIDEETAN

HEDABIDEEEK FUNTSEZKO ZEREGINA DUTE EREDU BERRI IREKIAGO ETA TOLERANTEAGOAK, ETA PERTSONEKIN, EMAKUMEEN IRUDIAREKIN ETA BERDINTASUN MEZUEKIN ERRESPETU HANDIAGOZ JOKATUKO DUTEN EREDUAK SORTZEKO. GAINERA, BALIOAK, ARAUAK ETA GIZARTEAREN EDUKI SINBOLIKO UGARI TRANSMITITZEN DITUZTE HEDABIDEEEK. ALBISTEAK SORTUZ ETA IDATZIZ ERE IRITZIA, EZTABAIDA ETA GOGOETA ERAGITEN LAGUNTZEN DUTE.

Hedabideek, albisteen tratamenduaren bidez, erreferentziako ereduak eta gure gizartearen balioak indartzen dituzten portaera gidaleroen sorkuntzan ere parte hartzen dute. Mundua ikusteko dugun moduari eta ulermenari eragiten dion «errealitate» bat sortzen eta birsortzen dute hedabideek. Horregatik, funtsezko zeregina dute balioak eta irudi ez-estereotipatuak transmititzean, eta, hartara, genero bereizkeriarik gabeko gizarterantz egin beharreko aldaketarako motor bihur daitezke.

«Berdintasunean oinarritutako sanferminak» taldea lanean ari da nabarmentzeko zeinen garrantzitsua den jaiak errespetutik, berdintasunetik eta eraso sexistarik gabe gozatzea, eta argi utzi du hori lortzeko erantzukizuna gizarte osoari dagokiola. Horrenbestez, hedabideei eskatu nahi zaie beste jai eredu bat erakuts dezatela. Guztia ez baita kontrolik eza, gehiegikeria eta mugarik gabeko neurrigabekeria. Nahiz eta egia den era horretako jarrerak izan badirela, horiei gehiegizko garrantzia eta oihartzuna emanez gero, jaiaren berezko kontzeptua mugatu egiten da; ahotsa eta fokua soilik kontrolik gabeko jarrera horiei emanez gero, gertakari horiei buruz gogoeta egiteko eta kontzientzia sorrarazteko inolako gaitasunik gabe, kontrako eragina lortzen da aurretiaz: guztia balekoa den eta emakumeentzat seguruak ez diren jaien irudia erakustea, hain zuzen.

«Berdintasunean oinarritutako sanferminak» taldea lanean ari da emakume guztiek modu librean parte har dezaten eta bizi ditzaten jaiak. Eta lan horretan modu masiboan parte hartzen ari dira herritarrak ere. Jai libreak, alaiak, familienak, topaketarakoak, errespetuan oinarritutakoak... Ezaugarri horiek dituzten sanferminak ere erakutsi behar zaizkio munduari mikroen eta irudien bitartez.

Hedabideak bide ezin hobea dira iritzi publikoa sortzeko, jendea mugiarazteko eta gogoeta egitea bultzatzeko. Beraz, Iruñeko Udaletik eskatzen dugu sanferminetan hedabideek begirada zabal dezatela, eta erakuts dezatela jai hauek ez daudela soilik kontrolik gabeko jarrerez eta dena balekoa den uneez osatua; aitzitik, adieraz dezatela jende guztiak festez modu librean goza dezan atzetik lan handia duten jaiak direla. Hedabideek asko lagun dezakete hiri atseginaren irudia, jai gozagarri eta errespetuzkoaren irudia eta bisitan datozeinei harrera egokia egin dien ingurune seguruaren irudia zabaltzen.

SANFERMINETAN SUSTATU BEHARREKO IRUDIAK



ERRESPETUA

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN
ARTEKO BERDINTASUNA**

ALAITASUNA ETA JAI «ONAK»

ADISKIDETASUNA

ALKOHOLAREN NEURRIZKO KONTSUMOA

BIZIKIDETZA

**TABERNAK, PEÑAK ETA
HERRITARRENTZAKO GUNEAK**

NEURRITASUNA

SANFERMINETATIK BAZTERTU BEHARREKO IRUDIAK



ERASO SEXISTAK

EMAKUME OBJEKTUAK

UKITZEAK

ERRESPETURIK EZAK

MOZKORKERIA

BORROKAK

KALEKO MAKROEDANAK

GEHIEGIKERIAK

ERASO SEXISTEN BERRI EMATEKO AHOLKUEN DEKALOGOA

1 ERASO SEXISTAK EZ DIRA ERA ISOLATUAN EMATEN

Emakumeen aurkako eraso sexistak ezberdintasun estrukturalaren testuinguruan ematen dira, emakumeekiko nagusitasunaren muturreko adierazpenak dira. Ez dira ausaz gertatzen diren indarkeria adierazpenak, ez dira naturalizatu ez normalizatu behar jai giroan emateagatik. Emakume guztxie eragiten dieten gertakariak dira, ez soilik jasaten dituztenei, eta emakumeen askatasuna eta berdintasunean parte hartu ahal izatea baldintzatzen dute.

2 EZ EGOTZI ERASO SEXISTAK ONDORIO OKERRAK EKARTZEN DITUZTEN ARRAZOI OKERREI

Erasoak ezin dira justifikatu. Ezin da arrazoiei buruz espekulatu, justifikazio moduan har baitaitezke. Eraso bat arrazoitzeko biktima izan den emakumearen aukerekin zerikusia duten gaiak aipatzea ekidin behar da: janzkera, kontsumitu dituen substantziak (normalean egin diotenaren errua edo erantzukizuna duela iradokitzen duen elementu bezala erabiltzen da; erasotzailearen kasuan ordea, salbuesle edo justifikagarri moduan har daiteke), dantzatzeko moduan, aisialdirako aukeratu duen tokia, dituen harremanei dagokienez hartu dituen erabakiak, etab.

3 BIKTIMAK BABESTEIA INTERES PERIODISTIKO ETA INFORMATIBOEN GAINETIK

Era honetako informazioa ematerakoan biktima eta bere ingurua babestea lehenetsi behar da.

Informazioa ematerakoan erasotzak izan diren emakumeen intimitatea errespetatu eta babesten dela ziurtatu behar da. Informazioa era zehatz eta zorrotzean emateko ez da beharrezkoa erasotzak izan diren emakumeak publikoki identifikatu ditzaketen datuak ematea, emakume horiek seinalatzea eta, beraz, berriro ere biktimizatzea.

4 «LEHEN BERRIEI» BURUZKO ITURRI OFIZIALAK

Konfirmatu gabeko susmoak eta datuak azkarregi hedatzeak nahasketa sortzen du eta eraso baten aurrean era egokian jokatu eta esku hartzea zailtzen du.

Erasotzak izan diren emakumeei ez die onik egiten.

5 INFORMAZIOA OSATZEKO ADITUENGANA JO

Adituengana joko da informazioa osatzen laguntzeko eta gertatutakoa testuinguruan kokatzen eta horretan sakontzen duten ikuspuntuak emateko, bestelako adierazpenen eragin «normalizatzailea» edo «sentsazionalista» saihesten lagunduz.

6 SOILIK BEHARREZKOAK DIREN TESTIGANTZAK JASOKO DIRA

Informazioarekin batera ematen diren testigantzak beharrezkoak izan behar dira. Informaziorik ematen ez duten biktimei edo erasotzaileei buruzko iritziek ez dute laguntzen emakumea laguntzen, osatzen, gertatutakoa salatzen ez argitzen.

7 «PASIONALA» ETA «JELOSKORTASUNA» MODUKO TERMINOAK SAIHESTA

Emakumeen aurkako indarkeria ez da ikuspegi sentimental batetik ikusi behar. «Jelaskortasuneko oldarra» gisako adierazpenek erasoak arlo pertsonalean edo harremanen arloan kokatzen dituzte, estrukturaletik urrunduz eta bat-bateko erreakzio bihurtuz.

8 INFORMAZIOAREKIN BATERA DATOZEN IRUDIEI ETA ARGAZKI OINEI ERREPARATU

Lehenago emandako aholkuak testuarekin batera datozen argazki, irudi, konposizio eta argazki oinetarako ere balio dute. Morbo eta sentsazionalismo zantzu oro saihestu egin behar baita biktimaren eta gainerako emakumeen duintasuna zaintzeko.

9 ERRUGABETASUN-PRESUNTZIOA

Errugabetasun-presuntzioa errespetatuko da eta soilik kondena-epai bat dagoenean erasotzaileak behar bezala identifikatuko dira informazioa argitaratzekoetan eta ezarritako zigorra nabarmendu egingo da.

10 ERAKUNDEEN EKIMENEN ETA ERASOEI AURRE EGITEKO JARDUKETEN BERRI EMATEA

Hiritarren, erakundeen eta mugimendu feministen erantzuna informazioaren parte da. Ekimen horiek jakitera eman daitezen eta informazioan eraso sexistak salatzeke dauden moduei erreferentzia egiten saiatuko da.

ZEZENAREN FERIA

IRUÑEKO ZEZENAREN FERIA 1959 HASI ZEN ETA ZEZENAK ZEZENKETARIAK BAINO GARRANTZI HANDIAGOA DUELAKO EZAGUNA DA. EKITALDI BEREZIA DA, EGUZKITAN DAUDEN HARMAILETAN ESERITZEN DIREN PEÑAK ETA TXARANGEK ZEZENKETA KANTU ETA MUSIKAREKIN ANIMATZEN DUTELAKO ETA FESTA PARALELO BAT ANTOLATZEN DUTELAKO.

ZEZENKETAK ETA HAIEN HISTORIA

Iruñeko Feria zortzi zezenketak osatzen dute, uztailaren 7tik 14ra, 18:30ean Iruñeko zezen plazan. Feriaren atariko gisa, uztailaren 5ean pikorketen zekorketa bat eta 6an zaldi gaineko zezenketa bat antolatzen dira.

La Meca izeneko batzorde taurinoa (Misericordia Etxea) mende erdi bat baino gehiago darama feria hau antolatzen.

Iruñeko Feria Espainian ospe onena duten hiru ferietako bat da Madrileko San Isidro eta Sevillako feriekin batera. Bertan uneko zezenketari garrantzitsuenek toreatzen dute eta tradizio handieneko ganadutegietako zezenak lidiatzen dira. Urtero, feriako zezenik suharrenari Carriquiri saria ematen zaio. Era berean, oro har plazan jokorik onena eman duen ganaduari Zezen Feriaren Saria ematen zaio.

Horrez gain, Iruñeko Feria duen xede solidarioarengatik nabarmentzen da: rogramatutako ekitaldietan lortzen diren etekin guztiak Misericordia Etxean bertan artatzen diren agureak zaintzera bideratzen dira.

Garai batean, zezenketak Gaztelu Enparantzan antolatzen ziren. Babes gisa «lau taula» jarri eta harmaila gisa etxebizitzetako balkoiak erabiltzen ziren. Ikusle kopurua areagotzen hasi zen heinean, gero eta segurtasun neurri gehiago hartzen hasi ziren eta ikusleentzako espazio gehiago izateko aukera aztertu zen. Hortaz, agerian geratu zen leku egokiago bat izatea beharrezkoa zela.

Iruñeko lehenengo zezen plaza 1843an eraiki zen, Gaztelu Enparantzatik hurbil zeuden lur batzuetan (gaur egun Karlos III.a etorbidearen hasiera zatekeena), beti garai hartan gotortuta zegoen Iruñaren barruan. 1921ean gertatu zen sute baten ondoren, handik hurbil zegoen lur batean plaza berri bat eraiki zen, gaur egungo zezen plaza dena, eta 1922ko uztailaren 7an inauguratu zen.

Iruñeko Misericordia Etxeak, gaur egungo kudeatzaileak, eraiki zuen Udalak lagatutako lurretan.

1967an hedatze lan handia egin zen eta haren edukiera 19.500 posturaino areagotu zen. Horrela, Iruñeko Monumentala Espainiako bigarren handiena da eta munduko laugarrena, Mexikoko, Madrileko eta Nimeseko plazen ondoren.

KARTELA

Javier Balda Berástegui artista iruindarra da 2023ko Sanferminetako Zezenaren Feriako kartelaren egilea. Kartela zezen baten burua eta tauromakiako kolore adierazgarrienak gogora ekartzen dituen zatiak biltzen dituen collage bat da. Zezenaren Feriako 64. kartela da, baina 63. edizioa bete du; izan ere, Iruñeko Erruki Etxeak 2020an Baldari berari eskatutako kartela ezin izan zen aurkeztu, pandemiaren ondorioz Sanferminak bertan behera geratu zirelako.


2024 PROGRAMA

Uztailak 5. Zezenkoak.

Lodosako Pincha ganadutegiko zezenkoak Jarocho, Alejandro Chicharro eta Samuel Navalón nobilleroentzat.

Uztailak 6. Burtzikariak.

Carmen Lorenzo ganadutegiko zezenak Pablo Hermoso de Mendoza, Roberto Armendáriz eta Guillermo Hermoso de Mendoza burtzikarientzat.



Uztailak 7.

La Palmasilla ganadutegiko zezenak Diego Urdiales, Fernando Adrián eta Borja Jiménez toreatzaileentzat.

Uztailak 8.

Cebada Gago ganadutegiko zezenak Juan Leal, Román e Isaac Fonseca toreatzaileentzat.

Uztailak 9.

Victoriano del Río ganadutegiko zezenak Sebastián Castilla, Emilio de Justo eta Ginés Marín toreatzaileentzat.

Uztailak 10.

Fuente Ymbro ganadutegiko zezenak Miguel Ángel Perera, Roca Rey eta Tomás Rufo toreatzaileentzat.

Uztailak 11.

Domingo Hernández ganadutegiko zezenak Alejandro Talavante, Daniel Luque eta Juan Ortega toreatzaileentzat.

Uztailak 12.

Jandilla ganadutegiko zezenak Morante de la Puebla, Cayetano Rivera eta Roca Rey toreatzaileentzat.

Uztailak 13.

José Escolar ganadutegiko zezenak Rafaelillo, Gómez del Pilar eta Juan de Castilla toreatzaileentzat.

Uztailak 14.

Miura ganadutegiko zezenak Antonio Ferrera, Manuel Escribano eta Jesús Enrique Colombo toreatzaileentzat.

FERIA DEL TORO



SAN FERMÍN 2024
PAMPLONA / IRUÑA



MIURA



VICTORIANO
DEL RÍO



TOROS
DE CORTÉS



CERADA
GAGO



JANOILLA



ESCOLAR
GIL



FUENTE
YMBRO



LA PALMOSILLA



HERNÁNDEZ
MARTÍN



PINCHA



CARMEN
LORENZO

DL. NA. 489-2024

TXARTELDEGIAK

Sarrerak Zezen Plazako txarteldegian eskuratu daitezke, ikuskizun bakoitzaren bezperan. Osotara, 1.950 sarrerara salgai jartzen dira egunero. Horieta batzuk Sanferminak hasi aurretik Interneten bidez salgai jartzen dira. www.feriadeltoro.com helbidean prezioak eta txarteldegien ordutegiak kontsulta daitezke, baita sarrerak erosi ere.

ZEZENAREKIN ZERIKUSIA DUTEN BESTELAKO EKITALDIAK

BEREIZKETA (EL APARTADO)

Uztailaren 7tik 14ra, 13etan Zezen Plazan, zezenak arratsalderako zezenketarako sailkatu, zozkatu eta bereizi egiten dira. Iruñean, bereizketaren erritu honek izaera sozial nabarmena du, hori dela-eta zaleez gain, pertsona ospetsuak ere joan ohi dira eta Andaluziako xerez idor bat dastatzeko edo bezperan hildako zezen baten barrabilak dastatzeko aprobetxatzen dute.

MANDAKOEN DESFILEA

Uztailaren 7tik 14ra, 17:30ean, segizio ikusgarri batek Udaletxearen eta Zezen Plazaren arteko ibilbidea oinez egiten du zezenketa hasi baino lehenago. Beltzez jantzitako bi aguazilek, kapa soinean eta zaldian eserita, sekitoa gidatzen dute.

Haien atzetik kaskabildo eta banderatroekin apaindutako hiru mandakoz osatutako bi taldek desfilatzen dute, 14 mandakolariz lagunduta. Mandako horiek dira faena amaitzean plazatik zezena ateratzen dutenak. Desfilea La Pamplonesa udal musika bandak ixten du.

GANADUAREN FERIA

Iruñeko udalak uztailaren 7an Ganaduaren Feria antolatzen du. Bertara, Nafarroako eta beste eskualdeetako abeltzainak eta tratanteak joaten dira. Feria ganadu ekinoari buruzkoa da soilik eta Agustinosen Poligonoan kokatuta dago.

«FESTA», HEMINGWAYRI JARRAITUZ

SAN FERMINEN OHOREZKO FESTAK ETXEKO OSPAKIZUNAK ZIREN, HARIK ETA 1923KO UZTAILAREN 6AN 24 URTEKO IDAZLE BAT IRUÑERA IRITSI ZEN ARTE. HIRU URTE GEROAGO, BERE LEHEN ELEBERRI ARRAKASTATSUA ARGITARATU ZUEN: «THE SUN ALSO RISES» («FIESTA», «FESTA»). OBRA HORRI ESKER, MUNDUKO HITZORDU OSPETSUENETAKO BAT BIHURTU ZIREN SANFERMINAK. HEMINGWAY BEDERATZI ALDIZ ETORRI ZEN IRUÑERA.

Festa lanak estatubatuarrez eta britainiarrez osatutako talde baten istorioa kontatzen du. Talde hori Frantzia eta Espainian zehar zebilen, noragabe. Lehen Mundu Gerraren osteko belaunaldi galduko kideak ziren. Ernest Hemingway (Illinois, 1899 - Idaho, 1961) 1923ko uztailaren 6an iritsi zen Iruñera, bere lehen emaztearekin (Hadley Richardson) batera. Berezkoa zuen izaera kartsu eta ausartari esker, edozein iruindar bezalaxe murgildu zen sanferminetan: zezenen aurrean lasterka aritu zen, zezenketariekin adiskidetasuna izan zuen (Antonio Ordoñezekin, esaterako), bai eta herritarrekin ere (Juanito Quintanarekin, besteak beste), eta iruindarrekin batera jan, edan eta dantzatu zuen, sanferminek sortzen duten poztasuna eta euforia haiekin partekatuz.

Amerikar idazlea liluratuta geratu zen Nafarroako hiriburuko tradizioekin; hainbesterako, hogeiko hamarkadan ia urtero etorri baitzen (1923, 1924, 1925, 1926, 1927, 1929 eta 1931. urteetan, hurrenez hurren). Espainiako Gerra Zibilaren (bertan, Espainiako Errepublikaren alde egin zuen modu aktiboan) eta Bigarren Mundu Gerraren etenaz gero, birritan itzuli zen: 1953an eta 1959an, hain justu. Bi urte horien artean, Ernest Hemingwayk Pulitzer saria irabazi zuen (1953an, zehazki) eta urtebete geroago Literaturako Nobel saria.



Ajoarrieroaren errezeta suharki gorde zuen, eta usadio beti-berdineko gizona zela erakutsi zuen, bere gustuko saltokietara itzultzen baitzen beti. Horietako batzuk irekita daude oraindik ere: Txoko taberna, La Perla Hotela, Café Iruña... Guztiak ere hiriaren bihotzean dagoen Gazteluko plazakoak; bai eta Yoldi Hotela ere. Beste batzuk, haatik, desagertu egin dira: Quintana Hotela, Café Suizo eta Martzeliano Etxea.


Iruñeko Udalak omenaldia egin zion Ernest Hemingwayri 1968ko uztailaren 6an. Haren izena daraman pasealekuan, zezen plazaren alboan, monumentu bat inauguratu zuten, eta bertan izan zen Hemingwayren azken emaztea, Mary Welsh. Luis Sanguinok egindako monumentuaren oinarrian, hauxe dago idatzita: «Ernest Hemingwayrentzat, Literaturako Nobel sariduna, herri honen adiskidea eta bertako festen zalea, ezin hobeto ezagutu eta zabaltzen jakin zuena. Iruñeko Hiriak, sanferminak, 1968».

GAIXOA NI

SANFERMINAK OFIZIALKI UZTAILAREN 14AN BUKATZEN DIRA GAUEKO 12ETAN «GAIXOA NI» DELAKOAREKIN. IRUINDARRAK ETA BISITARIAK UDALETXEKO PLAZAN BILTZEN DITUEN EKITALDI BAT DA, NAHIZ ETA JAI GIROA DUEN AGUR HAU GAZTELU ENPARANTZARA ETA HIRIKO ERDIGUNEKO BESTE PLAZA BATZUETARA HEDATZEN DEN.



«Gaixoa ni» agur etengabe bat da, egun osoan zehar agurrak errepikatzen baitira: 14an goizeko azken entzierroa da, erraldoien eta buruhandien agurra eguerdian eta azken zezenketa arratsaldean. Zapi gorria oraindik lepoan eta kandela piztu bat eskuan, ehunka pertsona udaletxeko fatxada argiztatuaren aurrean biltzen dira Santuari eta festei agur esateko.



Udaletxeko balkoitik, alkateak Sanferminen amaiera ofiziala iragartzen du eta «Gutxiago falta da» delakoa esaten du, datorren urterako festak hasteko 9 egun gutxiago falta direnaren kontsolamenduarekin. Unerik hunkigarrietako bat bertan dauden pertsona guztiek, gaueko 12etan, zapia kendu eta haren muturrak bi eskuekin eutsita goratzen dutenean iristen da.

Gaixoa ni, Sanferminetako hainbat abesti eta *Gutxiago falta da* abesten dira.

Sanferminak ofizialki bukatu dira.

Udaletxeko Plazaz gainera, agur ekitaldi hau Gaztelu Enparantzatik ere jarrai daiteke «Gaixoa ni» agertzen duen pantaila erraldoi bati esker. Peñek leku hori aukeratu ohi dute San Fermini agur esateko. Aldereantzizko prozesio batean, Gaixoa ni agurraren ondoren, iruindar ugari eta bisitari ugari San Lorenzoko Elizaren hesirantz jotzen dute, bertan haien kandela eta zapiak uzten dituzte omenaldi eta agur zeremonia gisa.



SANFERMINAK DATUETAN



514 EKINTZA.
2024ko
sanferminetako
programa ofizialak
Iruñeko Udalak
antolatutako 514
ekintza biltzen ditu.




**1,5 MILIOI PARTE-
HARTZAILE.**
1,5 milioi pertsonak
parte hartu zuten
2023ko
sanferminetako
programako
ekintzetan.


**SARE SOZIALETAKO
1,8 MILIOI KONTU**
Instagram,
Facebook eta
Twitter sare
sozialetako @
sanferminakiruñean
profilak 1.838.575
kontutara iritsi
ziren 2023ko
sanferminetan,
aurreko urtean
baino % 22 gehiago.

**1.157.280 KILO
BEIRA ETA ZABOR**
bildu zituzten
garbiketa-
zerbitzuek jai-
eremuetan 2023ko
sanferminetan.




**400 PROFESIONAL
AKREDITATUTA**
2023ko sanfermine-
tako entzierroeta-
rako. Mundu osoko
hamahiru herrialde-
tako 116 komuni-
kabitatarako lan
egiten zuten.






16.730
KORRIKALARIK parte hartu zuten 2023ko sanferminetako entzierroetan. Jende gehiena uztailaren 9ko, igandeko, entzierroan izan zen, 2.990 pertsonak korritu zuten.

22.000 PERTSONAK jarraitu zioten erraldoien eta buruhaundien konpartsari egunero.



KORRIKALARIEN KORRIKALARIEN %37 ATZERRITARRAK izan ziren. % 20,2 Iruñekoak eta % 42,7 Espainiako gainerako lekuetakoak.



3 ZAURITU ADARKADEN ONDORIOZ. 2023ko entzierroetan adarkaden ondorioz zauritutako 3 pertsona izan ziren, eta 34 pertsona eraman zituzten larrialdietako zerbitzuetara.



SANFERMINETAKO DEKALOGOIA



JAIJA HASTERA DOA

1 TXUPINAZOIA SEGURUA IZAN DADIN

Ez Udaletxe plazan ez eta Gazteluko plazan ere ezin izango da sartu: makilarik, beirarik, edari-potorik edo zuzenean edo zeharka kaltea egin dezakeen beste edozein elementu.

2 EBAKIAK IZATEKO ARRISKUAREN AURREAN

Gomendatzen da Udaletxe plazara, Gazteluko plazara edo Alde Zaharreko aisia-guneetara ez sartzea oinetako desegokiak jantzita, adibidez, txankletak, sandaliak edo antzekoak.



ENTZIERROAK

3 ERRESPETATU ARAUAK

Arriskua minimizatzeko, entzierroa arautzen duten segurtasun-neurriak zorrotasun handienarekin bete behar dira, eta zaintzen ari diren langileen oharrei kasu egin behar zaie beti.

4 AGINTZEN BADIZUTE, ATERA IBILBIDETIK

Laster-ketan parte hartzen duten guztiak jarraitu behar dituzte udaltzainen eta langile teknikoek oharra, eta ibilbideetik atera behar dute, hori egiteko agintzen badiete.

5 ADINGABEEK EZIN DUTE PARTE HARTU

18 urtetik beherako adingabeek ezin dute entzierroan parte hartu. 07:15etik aurrera eta bukatu bitartean ezin dira ibilbidean egon.

6 DEBEKATUTA DAGO ETA ZIGORTU EGINGO DA:

- Mozkorturik edo drogen eraginpean egotea ibilbidearen barnean.
- Korrika ibiltzeko desegokiak diren arropak edo oinetakoak eramatea jantzita edo segurtasune-rako egokiak ez diren objektuak eramatea.
- Zezenei deitzea edo haien arreta erakartzen saiatzea.
- Korrika dabiltzanei laster egitea edo babes hartzea zailtzeko moduan gelditzea ibilbidean.
- Irudia edo soinua grabatzeko edozein bitarteko erabiltzea, barne hartuta telefonia mugikorrekoa, ibilbidearen edo hesien barnean, baimenik gabe.

7 ERORTZEN BAZARA

Estali burua eskuekin, uzkurto gorputza eta ez altxatu zezenak igaro arte.



'BIGANTXAK'

8 ERRESPATU ANIMALIAK, EZ DA JOLASA

Bigantxetan debekatuta dago animaliei heltzea, tratu txarra ematea edo haiek astintzea, eta haiek ateratzea edo alde egitea zailtzea. Lesio handiak eragin daitezke, eta, beraz, kontu handiz ibili.



IRMO, ERASO SEXISTEN AURREAN

9 SALATU EDOZEIN EMAKUMEREN AURKAKO ERASO SEXISTAK

Modu zorrotzean jardungo da haien kontra eta zigortuko dira. Biktima bazara edo erasoren bat ikusten baduzu, deitu 092 edo 112 zenbakira. Biktima gisa, ez zara bakarrik egongo, gure lehentasuna zuri laguntzea izango da (abokatu baten laguntza, laguntza psikologikoa eta doako akonpainamendua).



LAPURRETAK ETA EBASKETAK

10 HOBEA DA PREBENITZEA

Iruña hiri segurua da, baina, lapurretarik eta ebasketarik ez gertatzeko, prebentzio-neurriak hartzea gomendatzen da:

- Saiatu ez erabiltzen poltsarik, gerriko poltsarik edo diru-zorrorik.
- Agiri pertsonalak, sakelako telefonoa eta eskudirua galtzen aurreko poltsikoetan eramatea komeni da, eta, ahal bada, barneko poltsikoetan.
- Halako delitu-ekintzak, gehienbat, jende asko pilatzen den tokietan gertatzen dira.
- Ez edan alkohol gehiegi, eta, dena den, saiatu lo ez gelditzen toki publi-koetan.

TELEFONO INTER

UDAL INFORMAZIOA

010 eta 948 420 100
Orduetgia: 9:30etik 13:30era
www.pamplona.es

IRUÑEKO UDALA. KOMUNIKAZIO

948 420 592
s.comunicación@pamplona.es

GOBIERNO DE NAVARRA. COMUNICACIÓN

848 426 700
prensa@navarra.es

NAZIOARTEKO PRENTSA BULEGOA

oip@sanferminprensa.com
Lekua: Baluarte (Batzar Jauregia eta Nafarroako Auditoriuma)
Orduetgia:
Uztailaren 1etik 4ra:
10:00etatik 14:00etara.
Uztailaren 5ean eta 6an:
8:50etatik 16:50etara.
Uztailaren 7tik 14ra:
7:45etik 16:45etara.
Telefono zenbakiak: 948 066 191,
948 066 192, 948 066 193,
948 066 194 eta 620 704 775
sanferminprensa.com

TURISMO BULEGOA

San Saturnino kalea, 2
Uztailaren 6a: 14etatik 20etara
Uztailaren 7tik 14ra: 9etatik 14etara eta
15etatik 20etara
Tel. 948 420 700

ERASO SEXISTENTZAKO ARRETA ZERBITZUA

Erasoentzako arreta zerbitzua: 112 «Iruña, eraso sexisten aurkako hiri konprometitua» Informazio- gunea eta protokoloa abiaraztea: Gaztelu enparantza, uztailaren 5etik 14ra 10:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 24:00etara.

GALDUTAKO GAUZAK

Iratxeko Monasterioa kalea, 2
Orduetgia: 24 ordu
Tel. 948 420 619

EMERGENCIAS

112

LARRIALDIAK-FORUZAINGOA

848 421 729

UDALTZAINGOA

092

ESGARRIAK

POLIZIA NAZIONALA

091

948 207 217

GUARDIA ZIBILA

062

IRUÑA-NOAIN AIREPORTUA

948 168 750

NAFARROAKO OSPITALE UNIBERTSITARIOA

848 422 222 eta 848 429 400

GUARDIAKO FARMAZIAK

948 222 111

SAN MARTIN DOKTOREA ANBULATEGIA

848 422 100

TREN GELTOKIA (RENFE)

948 130 202 eta 902 320 320

GURUTZE GORRIA

948 206 570

TAXIAK

948 232 300 eta 948 351 335

HIRI GARRAIOA

948 423 242

AUTOBUS GELTOKIA

948 203 566

GARABIEN GORDAILUA

948 420 444

POSTA ETA TELEGRAFOAK

902 197 197

POSTETXEA (BULEGO NAGUSIA)

5 PASEO IRUÑEAN BARNA

5 PASEO IRUÑEAN BARNAN



BIZTANLERIA

199.403 biztanle. Iruñaren metropoli-eremuan 351.000 pertsona bizi dira (Nafarroako biztanleriaren % 55a). Biztanleriaren % 10,6 etorkina da. Ikasturtean zehar, Iruñeak bere hiru zentro unibertsitarioetan 20.000 ikasle inguru hartzen ditu. Horrek goi-mailako ikasketetan hiri erreferente egiten du. Iruñean koofizialak diren bi hizkuntza elkarrekin bizi dira, gaztelania eta euskara.

HEDADURA

Iruñeak Nafarroako maparen erdigunea hartzen du. Itsasoaren mailaren gainetik 449 metrotako altueran dagoen goi ordoki batean kokatuta dago eta 23.55 km² hartzen ditu.

KLIMA

2016ean urteko batezbesteko temperatura 14 gradukoa izan zen.

Hiria Pompeyo general erromatarrak sortu zuen k.a. 75. urtean Arga ibaiaren muinoan zegoen herrirka baskoi baten gainean, erromatar errepublikaren lehenengo gerra zibila garatzen ari zen unean.

Lur intrapirenaikoen ardatzean kokatuta egoteagatik duen posizio geografiko onak IX. eta XVI. mendeen artean lehenengo buru eta ondoren erreinu bihurtu zuten; lehenengo monarka Eneko Aritza izan zen. Erdi Aroan hiri tradizional gisa handitu zen eta hiri bakar bat izatetik jatorri frankoko biztanleen auzoez osatutako hiri izatera igaro zen. Horrek hiriaren egitura urbanistikoa eta politikoa, demografiari, ohiturei, hizkuntzei eta ekonomiari fisionomia berri bat eman zion. Era horretan, independenteak ziren hiru talde urbano sortu ziren: Nabarrerria, San Zernin Burgoa eta San Nicolas auzoa. 200 urtez elkarbizitza tirabiratsua izan ondoren eta haien artean borroka internoak bizi ondoren, 1423an Karlos III.a Noblea erregearen bidez behin betiko batu ziren.

1512an Gaztelako Koroak Nafarroako Erreina konkistatu zuenetik, Iruña Nafarroako hiriburua politikoa gisa finkatu zen. 1571tik aurrera Ziudadela eraikitzen hasteak eta beranduago haren esparru gotortua indartzeak plaza gotorraren izaera eman zioten.

XX. mendean Iruñeko biztanleria zazpi aldiz handitu zen eta hiri moderno eta abangoardista batean bihurtu zen, baina bere antzinasuna, usadioak, historia eta aberastasun soziala zein kultura mantentzen jakin zuen.

1. HIRI GOTORTUA

Iruñeko eremu gotortua XVI. eta XVII. mendeen artean eraiki zen eta Europa osoan hoberen mantendutako eremu gotortuetako bat da. Iruñeko harresia, garai batean babes funtzioa zuen hesia, gaur egun aisialdirako eremu bat da eta elementu honek Iruñeko kultur- eta ingurumen-ondarea bateratzen ditu.

2. HIRI BERDEA

Iruña hiri berde gisa definitzen da. Parkeek eta lorategiek hiriaren azaleraren ia % 20a hartzen dute, eta haietan 250 zuhaitz espezie ezberdin aurki daitezke. Halaber, Iruña garapen iraunkorarekin konprometita dago eta mugikortasunaren, energia aurreztearen eta ingurumen-hezkuntzaren aldeko apustua egiten du.

3. HIRI XAKOBEA

Iruña Orreagatik sartzten den Xakobea ibilbideko lehenengo hiria da. Iparraldetik hegoaldera zeharkatzen du, ehun urtetik gorako kaleetan, aztarna xakobea duten tenpluetan, parkeetan eta lorategietan zehar.

4. HIRI GASTRONOMIKOA

Iruña lehen mailako helmuga gastronomikoa da, bertako produktuak eta Nafarroako errezeta tradizionalak dastatzera gonbidatzen duen hiria.

5. HIRI KULTURALA

Iruñean, historiak, naturak eta arteak ba egiten dute. Besteak beste, Nafarroako Museoa, Nafar Unibertsitateko Museoa, Gotorlekuko eraikinak eta Jorge Oteiza Museoa gainera margolaritzaz eta zizelkaritzaz gozatzera gonbidatzen dute.

1. IRUÑA, HIRI GOTORTUA

IRUÑEKO ESPARRU GOTORTU ERRENAGENTISTA EUROPAN HOBE MANTENDUETAKO BAT DA. BOST KILOMETRO BAINO GEHIAGOKO IBILBIDE EROSO HONEK HISTORIAN MURGILTZEA ETA HIRIA BESTELAKO IKUSPEGI HARRIGARRI BATETIK EZAGUTZEA AHALBIDETZEN DU.

SAN BARTOLOMEKO GOTORLEKUA

XVIII. mendean eraiki zen gotorleku honetatik abiatzen da harresien ibilbidea. Gotorlekuen Interpretazio Zentroa hartzen du, non babeserako esparru honen historia eta garapena ezagutu daitekeen.

LABRITEKO BALUARTEA

Esparru gotortuan dagoen babeserako elementu zaharrenetako bat da, eta 1540. urtekoa da. Erdi Aroko hiria Zabalgunearekin lotzen duen oinezkoentzako pasabide goratu batek leku honetara eramaten du. Paseotik, gauean, harresiak argiztatuta ikus daitezke.

BARBAZAN APEZPIKUAREN INGURABIDEA


Apezpikuaren Jauregia babesten zuen lerro gotortua da. Bertan, Erdi Aroko harresiaren hondakin gutxi batzuk ikus daitezke.

REDINEKO BALUARTEA

Haren forma hirukiarrari esker, kanoiek tiro-angelu guztiak bete zitzaketen. Hortaz, Redineko Baluaratea hiriak Arga ibaiaren gainean duen begiratokirik handiena da. Gainera, hari esker baluarkez osatutako sistema baluartekotua uler daiteke, haren kanoi-zulo eta garita, lubaki, errebellin eta kontraguardiekin. Ondoan, Iruñeko toki xarmangarrietako bat dago: Zaldi Zuriaren Txokoa.

FANTZIAKO ATEA

Esparru hesituko sei ateetatik jatorriko kokalekua eta itxura mantentzen duen bakarra da. 1553an eraiki zen eta XVIII. mendean bigarren kanpora ematen duen ate bat gehitu zitzaion, oraindik zubi altxagarria eta kate sistema mantentzen dituena. 1915. urtera arte gauero etxeratze-agindua ematen zen eta hiriko ateak itxi egiten ziren; harresiak esparru erasozina ziren.





NAFARROAKO ARTXIBO OROKORRA

XII. mendean Nafarroako Erregeen Jauregi gisa eraiki zen eta apezpiku eta monarken bizilekua izan zen. Rafael Moneok zaharberritu zuen eta 2003. urtean dokumentuen gordailu gisa inauguratu zen. Artxiboak barruan Iruñaren 1990ko maketa erraldoi bat eta bobeda itxurako areto erromaniko bat ditu.

INGURABIDEKO PASEALEKUA

Soldaduek zeruertza zaintzeko hainbestetan egin zuten ibilbide goratua da. Erdi Aroko San Zernin burgoko etxebizitza koloretsuak ditu aldeetara.

TAKONERAKO PARKEA

Hiriko parkerik zaharrena (1850) eta ezagunenetako bat da, bai frantses estiloko lorategiengatik, bai paseatzerakoan harridura sortzen duten estatuengatik, bai eremu hesituko lubakietan elkarrekin bizi diren orein, ahate eta indioilarrengatik. Esparru hesituan San Roqueko Errebellina eta, batez ere, Takonerako baluarte nabarmentzen dira.

ZIUDADELA

Esparru gotortu hau Espainiako Errenazimenduko arkitektura militarreko eredurik onena eta Europako babeserako esparrurik handienetako bat da.

Ziudadelak forma pentagonala du, angelu bakoitzean baluarte bana eta lubaki zabal batez inguratuta dago. Lau errebellinek eta bi kontraguardiek indartzen dute. Barneko lorategiak lau eraikin historiko mantentzen ditu, gaur egun arte erakusketen egoitza direnak.



- 1 San Bartolomeko gotorlekua
- 2 Labriteko baluarte
- 3 Barbazan Apezpikuaren ingurabidea
- 4 Redineko baluarte
- 5 Fantziako atea
- 6 Nafarroako artxibo orokorra
- 7 Ingurabideko pasealekua
- 8 Takonerako parkea
- 9 Ziadadela



2. PAMPLONA, HIRI BERDEA

IRUÑA ESPAINIAKO HIRI BERDEENETAKO BAT DA. PARKEEK ETA LORATEGIEK HIRIAREN AZALERAREN IA % 20A HARTZEN DUTE ETA HIRI EGITURAREN OINARRIZKO ZATI GISA HEDATZEN DIRA.



ARGA IBAIKO PARKE FLUBIALA

Ia 20 kilometro dituen pasealeku zoragarri bat da, oinez zein bizikletaz egin daitekeena. Bertan espezie ezberdinetako zuhaitzak, arrainak, ahateak, hegaztiak eta bestelako animaliak ikus daitezke, bai eta askaldegiez, arrantzarako eremuez, lorategiez, Erdi Aroko zubiez, pasaguneez, errota zaharrez eta ibilbidean tartekatzen diren jolastokiez gozatu ere.

TAKONERAKO PARKEA

Hiriko parkerik zaharrena (1850) eta ezagunenetako bat da, bai frantses estiloko lorategiengatik, bai paseatzerakoan harridura sortzen duten estatuengatik, bai eremu hesituko lubakietan elkarrekin bizi diren orein, ahate eta indioilarrengatik. Esparru hesituan San Roqueko Errebellina eta, batez ere, Takonerako baluarte nabarmentzen dira.





GAZTELUGIBELA ETA ZIUDADELA

Bi parkeetako zuhaitzi eta belardiek hartzen dituzten 280.000m² horiek hiriaren birika begetal erraldoia osatzen dute. Harresi, lubaki eta baluarte artean kirola egiteko edo erlaxatzeko guneak dira.


MEDIALUNA PARKEA


Ilbehera dagoen ilargi baten itxura du eta bere iturri, arrainen urmael eta diseinu erromantikoeekin Iruñeko parkerik ederrenetako bat da. Bertan 43 zuhaitz espezie bizi dira. Aipamen berezia merezi dute bertako sekuioia erraldoiek zein Pablo Sarasate biolin-jotzaile nafarraren eta Santxo Handia erregearen omenezko monumentuek.

YAMAGUTXI PARKEA

Diseinu japoniarra duen parke bat da, 85.000m²-tan elementu nipondarrak jasotzen dituena: geiser handi bat, pagoda bat, zubi bat eta urjauzi bat dituen urmaela eta hainbat landare espezie exotiko. Parkea 1997koa da eta hiriak XVI. mendean San Francisco Javierrek ebangelizatu zuen Yamagutxi hiri senidetuarekin duen harreman onari esker sortu zen.

- 1 Arga Ibaiko parke flubiala
- 2 Takonera parkea
- 3 Gaztelugibela eta Ziudadela
- 4 Medialuna parkea
- 5 Yamagutxi parkea





3. IRUÑA, BIDEKO LEHENENGOA

IRUÑA SANTIAGOKO BIDE FRANTSES OSPETSUAREN LEHENENGO HIRIA DA. MAGDALENAKO ZUBIAK ETA FRANTZIAKO ATEAK ONGI ETORRIA EMATEN DIOTE ERROMESARI ETA EHUN URTETIK GORAKO KALE, AZTARNA XAKOBEOA DUTEN TENPLU, PARKE ETA LORATEGIZ OSATUTAKO BIDE BATETETIK DARAMATE.



Magdalena auzotik sartzen da hirira. Bideak ibiltaria Erdi Aroko XII. mendeko zubi bateraino eramaten du. Arga ibaia gurutzatzen duena eta punta bakoitzean Santiagoren irudia duen gurutze bana duena. Zubi hori zeharkatu ondoren, erromesa harresien oinarrira iristen da, eta gotorlekuko lubaki zaharretan barna ibili ondoren Frantziako edo Zumalakarregiren Atetik Alde Zaharrera iristen da.

Ibilbideak ibiltariak derrigorrez hiru burgo zaharren kaleetan eta eliza ezagunetan zeharka-meharka ibiltzera darama: Nabarrera, Santa Maria la Real katedralarekin; San Nikolas, izen berdina duen parrokiarekin; eta San Saturnino, San Zernin elizarekin.

Ziudadela parkea inguratu ondoren, bideak Gaztelubidetik jarraitzen du eta hiriaren alde modernoko kaleetan galdu egiten da Nafarroako Unibertsitatearen eremura iristeko. Bertan harrizko zubi batek itxarongo du erromesa Zizur Txikirantz gidatzeko.

4. IRUÑA, HIRI GASTRONOMIKOA

IRUÑEKO BESTE ALDERDI ERAKARGARRIENETAKO BAT GASTRONOMIA DA, NAFARROAN GURE KULTURAREN PARTE DENA.



Gosea pizteko, onena Alde Zaharreko kaleetan «poteatzea» eta «pintxo» ezagunetako batzuk dastatzea da. Biziki gustatuko zaizkizu. Ondoren, mahaian, bertako produktuak ezinbestekoak dira: Erriberako barazki-menestra, pikillo piperrak, zainzuriak, arkume edo txahal haragia, Erronkariko gazta... Eta amaitzeko, eskuz egindako postre tradizionalen bat probatzea baino hobetarik ez dago: mamia, gaztanbera eztiarekin, arrosesnea, pantxineta, euskal pastela edo txantxigorri opilak.

Hori guztia zuretzat irekita dauden 150 taberna eta jatetxe baino gehiagotan eskuragarri izango duzu.

Eta bazkariari laguntzeko, Nafarroako Jatorri-Deitura duen ardo on bat aukeratu ezazu: beltza, zuria, gorria edo moskatela. Eta likoreak gustoko badituzu ezin duzu Iruña utzi patxarana dastatu gabe.

Nafarroako produktu tipikoetako asko fresko zein kontserban erosi ditzakezu, elikagai dendetan edo hiriko merkatuetan.



5. IRUÑA, HIRI KULTURALA

IRUÑAN MARGOLARITZA ETA ZIZELKARITZAREN ZALEEK HAINBAT ESPAZIOTAN LAN ARTISTIKO SORTA ZABAL BATEZ GOZATZEKO AUKERA IZANGO DUTE. BESTEAK BESTE, NAFARROAKO MUSEOAN, NAFARROAKO UNIBERTSITATEAREN MUSEOAN, ZIUDADELAKO ERAIKINETAN ETA, IRUÑEKO ALDIRIETAN, UHARTE ARTE GARAIKIDEAREN ZENTROAN ETA JORGE OTEIZA MUSEOAN.

NAFARROAKO MUSEOA


Museoak Historiaurrekotik XX. menderainoko artelan nafarrak biltzen ditu, baita zenbait aldi baterako erakusketa interesgarri ere. Haien artean nabarmentzekoak dira mosaiko erromatar zirrargarriak, Leireko arketa hispanomusulmana, Esteban Maisuak zizelkatutako kapitele erromanikoak, Iriberritik eta Katedraletik ekarritako Erdi Aroko freskoak, eta San Adriango Markesaren erretratu ederra, Goyaren artelan garrantzitsua.

IRUÑEKO KATREDALAREN OCCIDENS MUSEOA

Iruñeko katedralak «Occidens» hartzen du, Mendebaldeko historia ezagutzeko ibilbide bat, gure kulturaren jatorriari buruzko hausnarketa piztea helburu duena. «Occidens» erakusketa arrunt batetik askoz haratago doan esperientzia bat da. 2013ko ekainean munduko erakusketa onenaren saria jaso zuen eta 2014an Europako Museorik Onenaren Lehiaketan (EMYA 2014) Special Commendation Saria eskuratu zuen.

NAFARROAKO UNIBERTSITATEAREN MUSEOA

2015eko urtarrilean inauguratu zen. Hortaz, hirian erakusketak agertzeko dagoen espaziorik berriena da. Maria Josefa Huarteren bilduma agertzen du eta XX. mendeko funtsezko artisten lanak jasotzen ditu, besteak beste, Picasso, Rothko, Kandinsky, Chillida, Oteiza, Tàpies... Horrez gain, margoen bildumari Nafarroako Unibertsitatearen Argazki Funtz zaharra gehitzen zaio, XIX. eta XX. mendeko 14.000 argazki baino gehiago jasotzen dituen eta ospe handiko argazkilari eta argazkikazetarien argazkiak agertzen dituen, adibidez Jose Ortiz Echague, Pere Català Pic, Robert Capa eta Henri Cartier-Bresson.





ZIUDADELA

Ziudadelako parkearen lau eraikinek (Armen Aretoa, Mixtoen Pabilioia, Labea eta Polborina) nafar artista garaikideen aldei baterako erakusketak hartzen dituzte. Proposamen artistiko berriak inguru pribilegiatu batean ezagutzeko espazio ezinhobea da.

HIRIKO ESKULTURAK

Iruñeko kale, parke eta lorategiek hainbat autorek eraikitako 110 eskultura baino gehiago dituzte, guztiak inguruan erabat integratuta. Kobrean, harrian, brontzean, altzairuan, hormigoian, burdin forjatuan... egindako altxor artistikoak dira. Askotan bisitariak eta haien egunerokoan xehetasunez aztertzea geratzen ez diren iruindarrak ez dira konturatzen hor daudenik.

Eskulturei buruzko informazio guztia jakiteko (kokapena, izenburua, autorea, historia, etab.) honako web orria kontsulta dezakezu: <http://esculturas.pamplona.es/>.

JORGE OTEIZA MUSEOA

Oteiza Museoan Altuza herrian dago (Iruñatik 9 kilometrotara) eta zizelkari ezagun eta artista integralaren bilduma pertsonala jasotzen du, 1.650 eskulturaz, bere laborategi esperimentalaren 2.000 piezaz, marrazkik, collagez eta Klarionen Laborategiaz osatuta dago; azken hori Museoaren funtsezko ekarpenetako bat da.

UHARTE ARTE GARAIKIDEAREN ZENTROA

Iruñaren erdigunetik bost kilometro baino gutxiagora, Uharte herriak erakusketen eta era guztietako jardueren bidez arte garaikidea diziplina guztietan hedatu eta sustatzeko espezifikoki eraiki den Nafarroako lehenengo ekipamendu kulturala du. Zentroak arreta berezia eskaintzen dio gaur egungo artearen panoramari, sortzen ari den arteari eta diziplina anitzeko sormenari.

**NAFARROA
EZAGUTZEKO
PROPOSA-
MENAK**

NAFARROA EZAGUTZEKO PROPOSA- MENAK

<https://www.visitnavarra.es/eu/home>

<https://www.visitnavarra.es/eu/planifikatu-bidaia/ibilbideak-nafarroan>

<https://www.visitnavarra.es/eu/planifikatu-bidaia/ezinbestekoak>



IRUÑEAZ ETA NAZIOARTEAN OSPEA ZABALDUA DUTEN BERTAKO SAN FERMIN JAIEZ HARRO DAGOEN KOMUNITATE BAT DA NAFARROA, BAINA ASKOZ ERE GEHIAGO DU ESKAINTZEKO ETA, IZAN ERE, HARRITUTA UZTEN DU BERTARA BISITAN DATORRENA.

Espainiako iparraldeko eskualde bat da, Donostiatik, Bilbotik eta Biarriztetik gertu. Bertan, 100 kilometro eskasetan, Pirinio berdeak iparretik hegora zeharkatu eta Erriberako lautada arreetara iristen gara.

Iparraldean sorginkeriarekin lotzen diren haitzulo batzuk daude, Zugarramurdikoak besteak beste; baso ikaragarriak, haien artean Bertizko Natura Parkea eta Iratiko oihana, Europako bigarren pagadi/izeidi zabalena, eta urtegi, haitzarte eta iturburu ederrak. Hemen kokatzen da Orreaga legendarioa ere, Donejakue Bidearen atea Espainian, erromes askok aukeratua beren ibilbideari hasiera emateko, eta komunitatea zeharkatzen duena iparraldetik ekialdera Errioxara iritsi arte.

Nafarroako **Erdialdera** beherantz goazela, labore eta mahastien eremuak aurkituko ditugu, baita Erdi Aroko artea ere, sorpresa atseginak emango dizkiguna: Oliteko jauregi gotikoa, monasterio ederrak, eliza erromanikoak, antzinako aztarnategiak eta Erdi Aroko herriak, non harria den protagonista.

Eta hegoaldean, Tuteran, **Erriberako** hiriburua, eta Errege Bardea parke naturala: inguru harrigarri bat, basamortu baten itxurakoa, eta ilargikoa ere dirudiena. Hegoaldeko paisaiaren ezaugarri dira ere bertan dauden baratze emankorrak, Nafarroako barazki famatuen sorlekua: zainzuria, piperra, kardua, alkatxofa...

Hala, komunitate hau **bertako gastronomia tradizional** joriagatik bereizten da; gure lur anitzetan kilometro zeroko produktuak ernatu eta beren zapore guztiarekin iristen dira mahaira. Ardoak, gaztak, olioak, haragiak eta produktu-sorta zabal bat, kalitatearen ziurtagiriekin, babestuak izateko eta jatorrian diren bezala jarraitzeko.

Nafarroa **naturala eta landatarra** da. Arreta handiz zaintzen ditu bere ingurunea, bere tradizioak eta bere herriak; horregatik da hain atsegingarria bere lurak lasai zeharkatzea, ehunka kilometroko bere bide berdeetatik gabiltzala, zikloturismoaz gozatuz edo naturarekin harremanetan egoteko edozein jarduera egin bitartean. Bidea jarraitzera edo bertako gune historiko eta herri xarmagarrietatik -Otsagabia, Uxue eta Lizarra besteak beste- galtzera gonbidatzen du Nafarroak.

Nafarroak abegi onez hartzen ditu bere bisitariak, eta bertako jendearengan eta bertako kalitatezko alojamentuetan antzematzen da hori. **Nafarroak «bestelako turismo» bat egitera gonbidatu nahi du**, harrera egiten gaituen leku bakoitzean uzten dugun arrastoaz jabetzen garen turismo bat, alegia. Bere magia iraunarazteko. Eta naturarekin eta kulturarekin benetan konektatzeko. Gu bertan parte izatea eta munduko helmuga jasangarrienetako batean sentitzea, hori da bere nahia.

Eta Nafarroak berak ere utzi nahi du bere arrastoa zugar, arrasto on bat, motxila esperientziez betetzen duen horietako bat, eta irribarre egitera bakarrik eramaten gaituena. Eta bertara itzultzera.

1. ORREAGA, DONEJAKUE BIDEAREN ATEA

NAFARROA DONEJAKUE BIDEKO LAU IBILBIDEK ZEHARKATZEN DUTE, BAINA IBILBIDE IZARRA ETA TRADIZIONALA, ZALANTZARIK GABE, FRANTZIAKO BIDEA DA, DONIBANE GARAZITIK MUGA ZEHARKATU ONDOREN HERRI LEGENDARIO BATERA IRISTEN DENA: ORREAGA, DONEJAKUE BIDEAREN ATEA ESPAINIAN.

<https://www.visitnavarra.es/eu/zer-bilatzen/donejakue-bidea>



Esperientzia hori erosotasunez egin daiteke autoan, bizikletan edo oinez, zure erritmoan, eta norberak sentitzen duen jiteari jarraituta, hau da, asmoa erlijiosoa, kirola egitekoa, kulturala, espirituala edo gastronomikoa izanda ere.

Bide horrek, Nafarroan, Pirinioetako paisaia berdeetatik Erdialdeko muino leunetaraino eramango zaitu, Iruñeko hiriburutik eta Garesko zubi erromaniko enblematikotik igarota. Bertan, Erdi Aroko harribitxi batzuk ere topatuko dituzu, besteak beste, Eunateko baseliza oktagonala eta Lizarrako eta Vianako gunehistorikoak.

Hala, 6 edo 7 etapatan deskubrituko duzun aniztasun horri guztiari esker (paisaiak, ondare arkitektonikoa, jendeak, gastronomia, hiriak eta herriak) **miniaturazko Bide bat** bihurtzen da Nafarroa. Zure ibilbidea Galiziara arte osatzeko modurik onena erabakitzen lagunduko dizun proba bat.

2. IRATIKO OIHANA ETA PIRINIOETAKO PAISAIK

NAFARROAN NATURA ZIRRARAGARRIA EZAGUTUKO DUZU.

<https://www.visitnavarra.es/eu/iratiko-oihana>

<https://www.visitnavarra.es/eu/zer-duzu-gustuko/turismoa-natura>



Europen den **bigarren pagadi/izeidi handiena** Iratiko oihana dugu eta bertako bidexketatik galtzea esperientzia ahaztezina da, batez ere udaberrian eta udazkenean etorrita. Gainera, Pirinioetan beste oihan ikusgarri batzuk ezagutu ahal izango dituzu, Bertizko Parke Naturala, Orgi, Kintoa eta Leitzalarrea, besteak beste.

Nafarroako paisaiek gelditzera gonbidatzen dute eta leku hauen lilura sentitzera: ekialdeko Pirinioetako gailur garaiak; Baztango bailarako mendi leunak, baserri bikainen kokaleku; Irunberriko eta Arbaiungo arroila sakonen gainetik saiak hegan egiten; Urederra ibaiko ur turkesak; Urbasa mendiko panoramika zorabiagarriak, eta Zugarramurdiko edo Mendukiloko leizeak.

3. TURISMO AKTIBOA: MENDI-IBILTARITZA, ZIKLOTURISMOA ETA ABENTURA-PARKEAK

BERTAKO PAISAIAREN ANIZTASUNAGATIK, NAFARROA PARADISU BAT DA NATURA ETA AKTIBITATEA UZTARTU NAHI DUTENENTZAT: IBILALDI GIDATUAK, BIZIKLETEN ALOKAIRU-ZERBITZUA, HIPIKA, TIROLINAK, URETAKO JARDUERAK EDO PASEOAK SEGWAYEN, SEKTOREAK ESKAINTZEN DIGUN JARDUERETAKO BATZUK BESTERIK EZ DIRA.

<https://www.visitnavarra.es/eu/abentura-parkeak>

<https://www.visitnavarra.es/eu/zer-bilatzen/turismo-aktiboa>



Eta **aisia- eta abentura-parkeak** aukera bikaina dira eguneko plan bat osatzeko: Sendaviva alternatiba hobezina izan daiteke familientzat, eta parkeak, besteak beste, Irrisari Land eta Baztan Aventura Park, aukera on bat emozio eta abentura bila datozenentzat.

Gainera, Nafarroako bi jarduera nagusi, publiko guztien helmenean daudenak, hauexek dira: **mendi-ibiltaritza eta zikloturismoa**. Bide-sare izugarri handi batek zeharkatzen du geografia mutur batetik bestera. Gainera, bide horietako asko egokiak dira bizikletan ibiltzeko, besteak beste, Plazaolako eta Tarazonicako bide berdeak, erabiltzeari utzitako trenbide zaharren trazatutik doazenak. Eta emozio bizi-bizien bila datozenentzat ez dago ezer hoberik BTT gunek baino.

Negua iristean, **eski nordikoari** eta elur-erraketei egokitzen zaie txanda, tradizio bilakatua Larra-Belaguan eta Abodin, Iratiko oihanaren erdi-erdian praktikatzeko.

4. KULTURA, ARTEA ETA OLITEKO JAUREGIA

NAFARROA ERRESUMA INDEPENDENTEA IZAN ZEN XVI. MENDERA ARTE, ETA BIDEGURUTZE BAT IZAN DA BERE HISTORIAN ZEHar. HORREXEGATIK DU ONDARE JORI BAT, ANTZINA BERTAN BIZITAKO HERRIEN HERENTZIA: BASKOIAK, ERROMATARRAK, FRANKOAK, MUSULMANAK ETA JUDUAK, BESTEREN ARTEAN.

<https://www.visitnavarra.es/eu/zer-duzu-gustuko/turismo-kulturala>

<https://www.visitnavarra.es/eu/erriberri>

<https://www.visitnavarra.es/eu/sanferminak>



Kultura horiek, kristautasunaren goieneko unearekin batera, ondare hauek utzi dizkigute: historiaurreko aztarnategiak; erromanikoko eta gotikoko obra garrantzitsuak, esaterako, Zangozako Andre Mariaren elizako portada; Leireko eta Irantzuko monasterioak; Orreagako kolejiata, eta Aralarko San Migel santutegia.

Eta, jakina, nabarmentzekoak dira Nafarroan bisitari gehien hartzen dituzten leku bi: **Xabierreko gaztelua**, Nafarroako zaindari San Frantzisko Xabier 1506an jaino zen gotorlekua, eta **Oliteko errege-jauregi** lerdana, XII. eta XIV. mendeetan altxatutako estilo gotiko frantses puruena, Nafarroako Erresumako gortearen egoitza izandakoa.

Eta kulturaz ari garela, ezin ahaztu Nafarroak harrotasunez bizirik iraunarazten dituen festak eta tradizio zaharrak; ezagunenak **San Fermin jaiak**. Nabarmentzekoa da, gainera, kulturaren, musikaren eta gastronomiaren arloetan antolatzen dituen ekitaldien agenda osatua, oso aukera interesgarriekin, besteak beste: Flamenco on Fire eta Iruñeko Harresiak jaialdiak, Kultur programa eta Oliteko Antzerki Jaialdia.

5. ERREGE BARDEA PARKE NATURALA

PIRINIOETATIK ORDUBETE BAINO GUTXIAGORA NAFARROAKO INGURU ZIRRARAGARRIENETAKO BAT DAGO, ERREGE BARDEA PARKE NATURALA, UNESCOK BIOSFERAREN MUNDUKO ERRESERBA DEKLARATUA.

<https://www.visitnavarra.es/eu/errege-bardea>



42.500 hektareako azalera du eta harridura sortzen du Pirinioetatik ordubete baino gutxiagora topatzen dugun bere itxura biluzi eta soil horrengatik, basamortu bat ematen baitu.

Errege Bardean, buztin, igeltsu eta hareharrizko bertako lurzoruen higadurak forma bitxiak zizelkatu ditu, ilargikoen antzera; sakanek, goi-lautadek eta mendixka bakartiek osatzen dute paisaia, eta horrengatik da inspirazio-iturri pintore eta idazleentzat, baita iragarkien, bideoklipen eta filmen eszenario izateko ere; bertan filmatu diren pelikulen artean daude *Airbag*, *Juego de Tronos* eta James Bond, agente 007ren abenturak.

Oinez, bizikletan, zaldian edo motordun ibilgailu batean zeharkatzeko diren **ibilbide seinalizatuetan** daude, baina **gidari espezializatuen** laguntzarekin joatea da aukerarik onena. Haiekin bazter ahaztezinak, parke naturalaren aberastasun guztia eta berau osatzen duten inguru guztiak ezagutu daitezke: Bardea Zuria, hedadura handiena duen eremua, eta argazki gehien egin zaizkien formazioak biltzen dituena, Castildetierra eta Pisuerra, alegia; Bardea Beltza, pinudi batzuk hartzen dituena; eta El plano, goragune leunak dituen labore-lurra.

6. GASTRONOMIA, BARAZKIAK, PINTXOAK ETA ARDOAK

NAFARROAK ONDO JAKIN DU ERREZETATEGI TRADIZIONAL BAT KONTSERBATZEN, BERE PAISAIA ANITZAK ESKAINTZEN DITUEN PRODUKTU GUZTIEZ ELIKATUA; IZAN ERE, HORREGATIK DA KM 0 NAGUSI BERE GASTRONOMIAN. DENA DEN, EBOLUZIONATZEN ERE JAKIN DU ETA GOURMET ONAREN JOMUGA BILAKATU DA, HARK EZ BAITU EZAGUTU GABE GERATU NAHI BERTAKO CHEFEN ETA MICHELIN IZARREN SORKUNTZAK.

<https://www.visitnavarra.es/eu/zer-duzu-gustuko/turismo-gastronomikoa>



Eta zer eskaintzen du bere jaki-tokiak?
Erdialdeko eta Erriberako **barazki** bikainak, besteak beste, kardua, alkatxofa, potxa, zainzuria eta pikillo piperra, Ferrán Adrià berak txalotuak. Gainera, foie, onddo eta haragiak, zaporetsuak eta osagarri hobezin bat dutenak, **Nafarroa eta Errioxa JDko ardo** bikainak; izan ere, bere Ardoaren Ibilbidea du Nafarroak. Eta, jakina, postreak, besteak beste, **Idiazabal eta Erronkari JDko gazta**, mamia, kanutilloak eta esne-torrada, patxaran likore tipiko eta digestiboarekin azkendu ahal izango duzuna.

Bestetik, oso sustraitua dagoen ohitura bat dago batez ere Iruñean, «**pintxotan joatea**», ohi denez otordu nagusien aurretik aukera ematen diguna **miniaturazko sukaldaritza** gozoaz egunero gozatzeko. Dena den, proposamen berritzaileenetakoak ezagutzeko abagunea hauxe da, udaberrian **Pintxoaren Aстера** hurbiltzea. Eta aukera baduzu zure bidaialdia bat etor dadin **Tuterako Barazkiaren Festarekin** edo urtaro horretan gure gastronomiari egiten zaion edozein omenalditako egunekin, bapo irtengo zaizu prestatu duzun ihesaldia.

7. ALOJAMENDUAK ETA ESPERIENTZIAK NATURAN

NAFARROAN OSO HANDIA DA GOGOBE TETASUN-MAILA, ESTABLEZIMENDUEK BEREN ZERBITZUA, KALITATEA, JASANGARRITASUNA ETA PROFESIONALITASUNA HOBETZEKO EGITEN DUTEN AHALEGINA AITORTU ETA SARITZEN DUEN GERTAKARIA.

<https://www.visitnavarra.es/eu/planifikatu-bidaia/ostatuak>

<https://www.visitnavarra.es/eu/planak>



Batetik, **hotel handiak** daude, ekitaldi orotarako prestatuak eta bikotean edo lagunartean city-break ihesaldi bat egiteko aproposak, edo baita base gisa erabili eta bertatik komunitatea bisitatzeko ere.

Bestetik, Nafarroak **naturarekin lotutako alojamenduen eskaintza** joria du: landetxeak, beren arkitektura ederra kontserbatzen jakin dutenak; hotel txikiak, xarmadunak eta zerbitzu eksklusiboekin; kanpinak eta aterpetxeak, ondo ekipatuak; eta alojamendu bereziak, besteak beste, zuhaitzetan eraikitako etxeak basoaren erdian, burbuilak basamortuaren ertzean, leize-etxeak, Erdi Aroko dorreak edo igluak Pirinioetara begira.

Batzuk bereziki aproposak dira familientzat, beste batzuk desgaitasuna duten pertsonentzat, baina, batez ere, guztiak daude prestatuta Nafarroa bisitatzeko duenaren egonaldia biribiltzeko.

Eta, bai naturan bai kulturaren, are eta murgilaldi sakonago bat egin nahi duenarentzat, **landa-inguruneetan antolatzen diren jarduerak** bizitzea baino gauza hoberik ez da: bisitaldiak ez titegi, olio-errotak, upeltegiak eta sagardotegietara, edo bestelako esperientziak, esaterako, zuzenean ezagutzea kaiku-lantegi bat, abeltegi ekologiko bat, gaztandegi bat edo gatzaga bat.